

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



Parte-hartze aurrekontuetan 10 proposamenen artean aukeratzeko aukera Olatzagutian / 7

Udalen energia kontsumoa momentuan zein den jakin, gero faktura murrizteko / 5

Etxarri Aranazko feriak: azienta erakusketa, kirola, musika, azoka eta beste asko / 6

Nafarroako Arte Eszenikoen zirkuitua Olaztin, Altsasun eta Etxarri Aranazten izanen da / 23

Sakanako Bizikleta Egunak 25. urteurrena ospatu zuen arrakasta handiz / 18-19

Etxarriko Mendira Joan Etorria igandean jokatu da, goizeko 11:00etan, Etxarriko ferietan / 15

Iban Resano dorrobarra Nafarroako II. Mailako Aizkora txapelduna / 16



Intxaurrendoren eskultura plazatik eramanez zaharberritze lanekin jarraitzeko / 22

Urbasako Igoera, bertan behera

Sakana Motorsportek hartu du erabakia, "Nafarroako Gobernuak azken orduan egindako eskaerak bete ezinak" zirelako eta "segurtasunean eragina" zutelako. Urbasako Igoerako 50. urteurrenean 100 pilotu aritu behar ziren, onenak tartean

Maidar Betelu OLAZTI

Asteazken gauean zabaldu zen berria, larunbatean jokatzekoa zen Urbasako Igoera mitikoa bertan behera geratu zela. Arraroa zen oso, aurten proba lehenengo aldiz antolatu zela 50 urte betetzen baitziren, eta urte luzean gogor lan egin eta gero, larunbaterako ilusio eta gogo handiz antolatzen ari baitziren 38. Urbasako Igoera. "Sakana Motorsportek XXXVIII. Urbasako Igoera bertan behera uztera derrigortuta ikusi du bere burua, probaren 50. urteurrenean". Ez dago atzera bueltarik. Larunbatean Urbasan ez dira motorren orroak eta zaleen txaloak entzungo.

Urriaren 1ean egindako eskariei ezin erantzun

Erabakia hartzeko azalpenak eman ditu taldeak. "Urbasako Igoeraren 6 edizio eta Olaztiko Rallysprintaren 3 edizio antolatu eta gero, Sakana Motorsport eskuderiak Urbasako Igoera bertan behera uztea eta epe mugagabean lasterketak antolatzen segitzez uztea derrigortuta ikusi du bere burua. Bere babesa eman digun jende guztiari oso eskertuta gaude eta haietaz harro gaude. Badakigu Urbasakoa lasterketa konplexua dela, baina Nafarroako Gobernuaren eta tokiko instituzioen aurrean babesgabe sentitzen gara" azaldu zuten, "oso triste eta minduta" daudela gaineratuz.

Sakana Motorsportek abuztuaren 27an egin zituen proba antolatzeko baimena-eskaerak, eskatutako denbora barruan, eta urriaren 1ean iritsi zitzairen Nafarroako Gobernuko Barne Departamentuko erresoluzio-txostena "proba hasi baino 4 egun lehenago". Barne Departamentuak bidalitako txostenak Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioeko Departamentuaren eskariak (Natura Ingurunearen Zerbitzua) eta Trafikoko Foruzaingoaren eta Bide Segurtasuneko eskakizunak biltzen zituen. "Azken arte saiatu gara Urbasako Igoera aurrera ateratzen, baina eskakizun horiek horren epe moztean betetzea ezinezkoa da, batetik, eta, bestetik, ikusten dugu neurri horiek segurtasun arazo handiak sortu ahal dituztela. Horregatik, proba bertan behera uztera derrigortuta ikusi dugu gure burua" ondorioztatu du Sakanako eskuderiak.

Antolakuntzak erabakiak kalte-tutakoak gogoan izan ditu. "Pilotuei, euren taldeendako dirua ateratzeko gurekin aritu behar zuten boluntarioei, babesleei, Urbasan bildu behar ziren milaka lagunei... sortu ahal izan dizkiegun arazoengatik barkatu, izugarri sentitzen dugu" aitortu dute. Halaber, Nafarroako Automobilismo Federazioaren eta inguruko federazio eta taldeen elkartasuna eta babesa eskertu nahi izan dute.

Eskatutako neurriak

Batetik, errepidea moztea eskatzen da, Ameskoako bidegurutzean, Olaztin, eta Altamirako bidegurutzean, ostiralean 16:00etatik aurrera; baina errepidea larunbatean goizeko 7:00ak eta 10:00ak artean zabaltzea eskatzen du Ingurumenak. "Horrek ibilbidea eta goialdea autoz betetzeko arriskua dakar, errepideko aldeetan barne, proba burutzeko segurtasun arazo handiak sortuz" diote Sakana Motorsportekoek. "Aurretik arratsalde eta gau osoa bidea itxita izan ondoren, nola zabalduko da larunbat goizean? Behin itxita ezin da zabaldu, segurtasunarengatik" azpimarratu dute eskuderiakoek.

Bestetik, Foruzaingoak exijitzen du errepide mozketak, ostiral arratsaldeko 16:00tik larunbat goizaldeko 7:00etara, antolakuntzako kideek hartu behar dutela bere gain. "Horrek trafiko erregulazioan eta segurtasunean esperientzia ez duten pertsonak arriskuan jartzea dakar. Nola egongo da gutako bat, boluntario bat errepidea isten? Ez du ez hankarik ez bururik. Horregatik 30 segurtasun enpresa ingururekin jarri gara harremanetan, lana eurei emateko, baina guztia planifikatzeko denbora oso gutxi dela esan digute guztiek" diote antolatzaileek.

Azkenik, Olaztiko Udalak Urbasako Igoeran ez duela aparteko laguntzarik ematen ere gaineratu du antolakuntzak. "10



SAKANA MOTOSPORT



SAKANA MOTOSPORT



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

hesi uzten dizkigute eta eszenatokia eta beste lortzeko ere zailtasunak izaten ditugu” diote. “Gure indar guztiak jarri ditugu, azkenera arte aritu gara lanean babesgabetasun instituzional honen aurrean. Nafarroako Gobernuaren planteamenduak proba segurtasun minimoarekin antolatzea ekartzen duela jabetu gara, eta horrela ezin da. Segurtasuna da gure lehentasuna, beti, eta ez dugu inoren segurtasuna kolokan jarriko” nabarmendu du eskuderiak.

Erabakiak hautsak harrotu ditu. Gehienek ez dute ulertzen nola instituzioetatik halako eskariak egin daitezkeen proba antolatzeko lauzpabost egunen faltan, baimena abuztuaren 27tik eskatuta zegoenean eta Foruzainek urte bat lehenago lasterketaren berri zutenean. e

50. urteurreneko festa ederra prestatzen ari ziren

Urbasako probak zerbaite berezia du, erakartzen du. Inguruko pilotu garrantzitsuenek beti nahi izan dute Urbasako 39 bihurgune zirrargarrietan gora aritzea eta ikusleek baita ere. Bezperatik gaua Urbasan pasatzera igotzen ziren zaletu asko, proba segitzeko toki onenak hartzeko, bezperan errepidea isten baitzen. Egunean ere milaka lagun hurbiltzen ziren, oinez. Aurten, lehendabiziko igoera egin zena 50. urteurrena ospatzen zela, oraindik gogo gehiagorekin zebiltzan Sakana Motorsportekoak, ilusioz gainezka.

Data berezia zela eta, 131 pilotuk eman zuten izena, sekulako marka. Antolakuntza kopurua mugatu beharrean egon zen, eta 101 pilotuko zerrenda

argitaratu zuten asteazkenean bertan. Tartean zeuden Espainiako Txapelketetako hiru pilotu txapeldunak: Joseba Iraola (NAC M20 FC), Garikoitz Flores (BRC BR53) eta Gerard de la Casa (Subaru Impreza WRC), eta haiekin batera Arkaitz Ordoki (BRC B49), Pantxo Egozkue (PA 20), Iker Palacios (BRC 05 Evo)... Jakina, sakandar ugari ez zuten Sakanako motorren festa galdu nahi eta bertan aritzekoak ziren, aipatutako Garikoitz Flores eta Iker Palacios pilotuez gain, Garikoitz Goñi (Renault Clio Sport), Delfin Goikoetxea (MG Super Seven), Urko Berdud (Renault Clio), Antonio Lopez de Sabando (Renault Clio), Ander Gurmindo (Renault Clio), Eneritz Besga (Citroen Saxo vts), Mikel Mendinueta (Peugeot 205 GTI), Iker Askargorta (Opel As-

tra) eta Oier Larrañaga (Citroen Ax gt). Tamalez, aurreikusten zen puntako eskakizuna bertan behera geratu da.

Urbasa Igoera 1968-2018 erakusketa

Sakana Motorsportekoak urte osoan aritu dira lanean. 50. urteurreneko kamisetak atera zituzten eta, horretaz gain, Urbasako Igoerari buruzko erakusketa egin zuten Olaztiko Kultur Etxean irailaren 14tik 23ra. Bertan, 50 urte luze hauetako argazkiak jarri zituzten ikusgai eta bideo bat prestatu zuten, igoeratan hartutako irudi ikusgarriez osatutakoa. Larunbatean erakusketa irekitzekoak ziren, baina ez dute egingo.

Erakusketa behar bezala mustutzeko, irailaren 14an Urbasako Igoeran parte hartu izan

duten auto mitikoak egon ziren aparkatuta Kultur Etxe aurrean: Renault Alpine bat, Porsche bat, bertako autoak...

Horretaz gain, Urbasako Igoeran parte hartu duten pilotu batzuk euren bizipenen berri eman zuten egunean bertan Sakana Motorsport taldeko Javier Goikoetxea kopilotuak gidatutako hitzaldian. Hitzarta zuten artean zeuden Pantxo Egozkue pilotu mitikoa, Garikoitz Flores lakuntzarra, aurtengo Espainiako Igoeren 2. Kategoriako txapelduna, Esteban Garcia Campiejo pilotua, Jesus Urdanoz pilotua, Carlos Aldecoa pilotua... Sakanako Motorsportetik ere adierazi ziguten Urbasako Igoeran aritu zen lehen gidari olaztiarra, 80 urte dituen Felipe Echarri, erakusketatik pasatu zela.

1968-2018, historia laburra

Real Automovil Club Vasco Navarrok antolatu zuen Urbasako Igoera lehen aldiz, 1968an. 43 pilotuk hartu zuten parte eta Claudio Aldecoa gasteiztarrak irabazi zuen. Beatriz Doria iruindarra ere aritu zen eta 15.a sailkatu zen.

Pilotu sakandar aitzindariak Jose Luis Goikoetxea iturmendiarra –1970.eko edizioan aritu zen lehenengoz– eta Fernando de Felipe altsasuarra –1971an estreinatu zen– izan ziren. Baita Jose Ignazio Sunsundegui altsasuarra ere, Monacoko Rallyan aritzera heldu zena. 70. hamarkadan Urbasako Igoerako urrezko urteak izan ziren. Joaquin de Leon, Jesus Saez de Buruaga eta Esteban Garcia Campiejo ziren pilotuetako batzuk, eta aipagarria da Jorge de Bagration-Mukhranelli Georgiako printzearen parte-hartzea ere, 1970 eta 1971ko edizioak irabazi zituen.

Urbasako Igoera proba garrantzitsua zen. Espainiako Mendi Txapelketarako baliaigarria izan zen 1982 urtera arte. Data aldakorra zen, eta sarritan data aldatu behar izan zuten, elurra eta beste zirela. 1973. urtean ibilbidea laburtu behar izan zuten, errepidearen egoeratik. 1978an ez zen ospatu.

Sabadelleko Juan Fernandezek sei aldiz irabazi zuen Urbasako Igoera. 1979 urtean lehen pilotu olaztiarra estrenatu zen herriko proban, Felipe Echarri. 80. hamarkadan Pantxo Egozkue izan zen nagusi; Urbasako Igoera lehen aldiz irabazi zuen pilotu nafarra izan zen. Eta 90. hamarkadatik 2000 urtera Aitor Zabaleta, Gerard de la Casa eta Andres Vilariño izan

ziren izarrak. Ondoren, Ander Vilariño eta Iñigo Martinezek hartu zuten erreleboa.

Aipatzekoa da barketak eta auto prototipoak direla Urbasako Igoerako autorik ikusgarrienetakoak. 1970. hamarkadan hedatu ziren. “1972an Iruñeko bajera batean Antonio Gracia Pachellik, Patxi Mateok eta Enrique eta Jesus Urdanozek sortutako Naia barketa Urbasako Igoerari lotuta dago nahi ta nahi ez” adierazi dute Sakana Motorsportekoek.

Urbasako Igoerak Espainiako Txapelketarako puntuagarria izateari utzi zionez, Real Automovil Club Vasco Navarrok arazoak izan zituen proba aurrera ateratzeko, eta 1987 eta 1991 artean ez zen ospatu. 1992. urtean Pantxo eta Carlos Egozkuek eta Escuderia Purroyk hartu zuten probaren ardura eta sekulako jendetza bildu zen Urbasako Igoera jarraitzen. 1994 urtean San Fermin Eskuderiak hartu zuen ardura 2004ra arte. Lesakako Eguzki Sportek hartu zuen ardura eta 2008ra arte, eta urte horretan pertsona bat hil zen zorigaitzoko istripu batean.

Urbasako Igoera berreskuratzeko asmoz, Sakana Sport eskuderia sortu zuten hainbat pilotu, kopilotu eta zaletu sakandarrek. Hurrengo urtean, 2011n,

CLAUDIO ALDECOA GASTEIZTARRAK IRABAZI ZUEN URBASAKO IGOERAKO LEHEN EDIZIOA, 1968AN

URBASAKO IGOERAREN ALTZOAN, MAKINA BAT PILOTU SORTU ZIREN SAKANAN, OLAZTIN BEREZIKI



50 urte luze hauetan denetariko ibilgailuek igo dituzte Urbasako bihurgune ikusgarriak. ARTXIBOA

Urbasako Igoera antolatu zuen, lehenengoz, Sakanako talde batek. Eskuderiak beti Sakanako talde eta kolektiboekin lan egin izan du, Olaztiko eskolak, Olaztiko Gazte Asanblada eta Guaixe astekaria, esateko. Aurten, Nafarroa Oinezekin elkarlanean aritzekoak zen.

Eta ezin ahaztu pilotu sakandarrak. Olaztin, bereziki pilotu handiak sortu dira: Francisco Harbina “Harby”, bere Simca Rallyarekin, Raul Lopez “Patxu”, Iban

Lopez de Goikoetxea, Joseba Aldaz, Aitor Fernandez, Javier Goikoetxea, Iker Azkargorta... eta haiekin batera egungo Espainiako Mendi Txapelketako 2. Kategoriako Garikoitz Flores txapelduna, Garikoitz Goñi, Iosu Muñoa, Joaquin Gonzalez, Alain Ribero, Gerardo del Rio, Delfin Goikoetxea, Iñigo Zelaia, Gorka Arbizu, Arkaitz Irigoien, Iñaki Gastaminza, Oier Larrañaga, Eneko Aristu... pilotu eta kopilotu zaletu ugari ditugu gurean.



ASTEKOA

ZOILA BERASTEGI MARIÑELARENA

Aitorpen bi

Galdetuko banizu: Zu arrazista zara? Ziurrenik ezetz erantzungo zenidake. Eta homofobia? Ziur aski, ezta ere. Xenofobia ote zaren galdetuz gero, ia seguru ezezo batekin erantzungo zenidakeela. Ziurrenik matxistatzat ere ez duzula izango zeure burua.

Bada, hona hemen nire Guaixeko aspaldiko zutabe hau berrestreintatzeko aitortpena: Ni bai. Ni arrazista naiz, xenofobia, homofobia eta matxista. Eta sentitzen dut irakurle, baina zu tamalez, ere bai. Dena den, ez nuke ardura lausoarazten duen lehen pertsona plurala erabili nahi; ez nuke "gu"-aren atzean ezkutatu nahi; nahiz eta aitortpen kolektibo bat ere ongi etorriko litzaigukeen, nire uste apalean. Lehen pertsona singularra bortitzagoa da, baina zintzoagoa ere bai. Eta badakar ekidin ezin den zerbait: ardura pertsonala. Eta harekin eskutik, poterea, ahalmena, aukera; gauzak aldatu ahal izateko, edo aldatzen hasteko bederen.

Horregatik diot, bai: ni arrazista, homofobia, xenofobia eta matxista naiz; gizarte eta hezkuntza bat xurgatu dudalako (gailera mariak esne berotan lez) edo hark ni xurgatu nauelako; eta hainbatetan harrapatzen dudalako nire burua ijito bat ikusi eta poltsoa heltzen; edo motxiladun arabiar bat autobusean sartu eta bonba

zartada bat imajinatzen; edo eskote zabal eta gona motzduen emakumea nire begiradarekin kritikatzeko, edota bere edertasunera begiak joaten zaizkidanean nire burua zentsuratzeko. Horregatik eta 1550 karakteretan sartzerik ez dudana zerrenda luze bategatik aitortzen dut xenofobia, arrazista, homofobia eta matxista naizela. Eta hona bigarrena: ez dut izan nahi. Baina gauzak aldatzeko lehenik ikusi eta onartu egin behar dira, gustokoa ez izan arren. Ez dago besterik.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Ez ote gara 1492. hartako sarraskiaren ondorioak jasotzen ari?

SAKANAKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Deskubrimendua deitu zioten 1492. urteko kolonizazio basati hari. Aldiz, inbasioa deitzen diote interresatu askok gaur egungo migrazioei. Amerika deskubritu omen zen 1492an. Horretarako edozein bide legitimatuz: bortxaketak, ondasunen lapurretak, bortizkeria edonon, edonori, edonola...

Bitartean, ekialdea lasai. Ikas liburuetan ere Ameriketako deskubrimenduaz hitz egiten da, eta mundua lasai! Giza Eskubideen urraketa bortitzaz inolako hausnarketarik gabe. Amerika deskubritu zen, ala Europak utzi zuen agerian bere izate maltzurra?

Ziurrenik ere, hango biztanleek ez zuten aukera gehiegirik izan bizitza salbatzeko, heriotza bat batean iritsiko zitzaien eta. Eta gaur egungo hango biztanleek, orduko sarraski basati zein bortitz haren ondorioak pairatzen ari dira, oraindik eta belaunaldiz, belaunaldi.

Iruditen zaigu azal zurikooi, egiaren izenean gabiltzala, jarduten dugula. Agian kontzienteki ahaztuz, beste lurraldeetako aberastasunei esker bizi garea bizi garen modu ederrean. Krisi guztien gainetik.

Ezin ahaztu dezakegu, bai Afrika nola Ameriketako baliabideen esplotazioari esker bizi

garea hain ederki. Hango biztanleei dagokiena lapurtzen jarraitzen dugulako. Eta orain bizitza salbatzeko helburu duinarekin gurera datozela eta, inbasioaz hitz egiten dugu? Ez al dugu hori baina memoria zein kontzientzia gehiagorik? Benetan?

Hau inbasioa bada, zer izan zen 1492. urtekoa? Agian ez da hori definituko duen hitzik sortu. Eta gu, gure gehiagotasunetik abiatu, gero eta altuagoak bai, baina alferrikakoak diren hesiak eraikitzen ditugu. Gu akabatze- eta etorriko balira bezala.

Baina berdin da, ez baitago bizitza salbatzeko beharra geldiaraziko duen inolako neuririk. Humanoagoak izan ordez, baztertzailagoak bihurtzen ari gara, gu ere. Ez ote da ba, 1492. haren ondorioak jasotzen ari garea?

Dena izaten baita joan-etorrikoa.

GUTUNA

Heriotza-zigorra eta etika politikoa

AINGERU MIKEO

Israa Al Ghomgham Saudi Arabiako aktibista feminista da. Bi urte daramatza kartzelan behin-behinekotasunean eta defentsa juridikorik gabe. Orain, Human Rights Wacht (HRW), giza eskubideen behatokiak jakinarazi duenez, urriaren 28an Israa Al Ghomghami epaiketa egingen diote eta fiskalak heriotza-zigorra eskatzen du berarentzat eta beste lau ekintzailerentzat. Zergatik? Giza-eskubideak aldarrikatzeko protestaldiak sustatzeagatik, erregimenaren aurka "abesteagatik" eta manifestaldietan parte-hartzeagatik. Israa Al Ghomghamek beti bide ba-

ketsuak erabili ditu eta ez du bortizkeria salaketarik.

Bitartean, gure Estatu negozio biribilak egiten ari da Saudi Arabiarekin. Berriki jakin dugu 400 lehegailu adimentsu salduko dizkiola, baina protesten aurrean, agintari politikoen esanetan prezisio handikoak dira eta bakarrik "gaiztoak" hilko dituzte. Gaitzerdi! Baina nor dira gaiztoak? Ez al da, bada, Saudi Arabia buru belarri aritu Estatu Islamikoa edo Daesh laguntzen? Saudi Arabiak "ez-legezko" bonbardaketa sistematikoak egiten ditu Yemenen Estatu Batuen laguntzarekin, izugarritzko sarraskiak eginez, baita herritar zibilen aurka ere. Noski, agintariek zuritu dute haien erabakia, bonbak saldu ezean, sei mila lanpostu galtzeko arriskua. Negozio inguruma-

ria horretan, Espainiak Saudi Arabiari makineria eta armak saltzen dizkio nagusiki, eta petrolioia erosi. Halaxe egina omen du Juan Carlos errege emerituak bi mila milioiko dirutza, handik erositako kupela bakoitzagatik euro bat edo bi kobratuz.

Bai, zikina da politika, baina zikinago bihurtzen da gerra-armak Estatuaren negozio terrorista bihurtzen direnean. Izan ere, badakigu zenbat lanpostu dauden arriskuan industria hiltzailearen lantegian, baina ez dakigu zenbat gorputz xehatuko dituzten lehegailu horiek, "gaiztoak" eta errugabeak. Edo, Israa Al Ghomgham heriotza-zigorra eramanen duen Estatuaren konplizea den. Horixe da gure politikari eta agintari askoren moralaren eta etikaren neurria.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Miren Alonso Raskin

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketatzaia@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Udal agintariak 1,2 milioiko energia faktura murrizteko tresna berria izanen dute aurki. SAKANAKO GARAPEN AGENTZIA

Monitorizatzeko adimendun sarea, bidean

15 udal zerbitzuen energia kontsumoak momentuan zein diren ezagutzeko eta horiek automatikoki eta eraginkorrago kudeatzeko lehen urratsa da. Fakturak murrizteko balioko du. Estatuan ibar batean halako sare bat jartzen den aurreneko aldia da

SAKANAKO Smart city edo adimendun hiri terminoa gero eta entzunagoa da. Batzuetan hiri eraginkorra terminoa erabili izan da. Terminoa bata edo bestea izan, oinarritzko beharrik egoki betetzen dituen jasangarritasunean oinarritutako hirigintza garapenari erreferentzia egiten dion kontzeptua da. Sakanan hiririk ez dagoenez, egokiagoa litzateke smart territory edo adimendun lurraldea terminoa erabiltzea. Eta hala egin du Sakanako Garapen Agentziak (SGA) eta jendaurrean aurkeztu zuen joan den ostegunean.

SGAko industria eta energia arloko teknikari Aintzane Iri-

berri Berrostegietak azaldu digunez, "Sakanako udal guztien kontsumo termiko eta elektriko guztiak momentuan kontrolatzeko Hispavista Labs enpresak garatutako e-Mehir plataforma ezarriko da. Plataforma bateratu horren bidez, udal zerbitzu nagusien kontrol automatikoa izanen dute denbora errealean". Horren erabileraz galdetuta, Iriberrik erantzun digunez, "udaletako hainbat zerbitzuren datuak biltzeko, momentuan bertan ikusi eta kudeatzeko aukera emanen du. Modu errazean eta Internetera konektatutako edozein gailutik eskuragarria da. Energia aholkularitza zerbitzu berriak sortzen ditu eta faktura

murrizten lagunduko du". 15 udalen gas eta argindar faktura gaur egun 1.200.000 eurokoa da urteko.

Teknikariak azaldu digunez, Hispavista Labsek jarriko duen teknologiak hainbat iturrietako datu kopuru handiak denbora errealean gurutzatu ditzake. Martxan dagoen aurreneko pausoa da udalen energia sareen analisia eta automatizatutako kontrola (tele-kudeaketa) ezartzea da. Herrietako argiteria publikoa, azpiegitura publikoen kontsumo elektrikoak, berogailua eta beste hartzen ditu barruan. Zehazki, 225 elektrizitate kontratu eta 33 gas-kontratu automatizatuko dira.

Plataforma horrek aukera gehiago eskaintzen ditu eta horiek ezartzea aurrerago aztertuko dute. Esaterako, honakoak kudeatzeko gai da plataformak: hondakinen eta uraren (ur-ihesak) adimendun kudeaketa egitea, soinu- eta atmosfera-kutsadura mapak egitea, ingurumen monitorizazioa edota berdeguenetako urreztatze automatikoa kontrolatzea.

Jatorria

Sakanako Plan Estrategikoaren barruan hiru aukera espazio identifikatu ziren: energia, zahartze aktiboa eta zirkulu-ekonomia. Arlo bakoitzean proiektuak daude eta adimendun ibarrarena energiarenari lotuta dago, energia kontsumoaren faktura murriztea baitu helburu. Eta asmo horrekin, dagoeneko, Sakanan bide bat egin da: 2015ean energia-diagnosia egin zen eta hurrengo bi urteetan energia kontsumoa murrizteko neurriak eta proiektua izan ziren.

Planaren barruan, berriki, beste aukera espazio bat identifikatu dute: Sakanaren digitalizazioa. Hiru arlotan ari dira lanean. Batetik, administrazioaren digitalizazioa. Sakanako Mankomunitatearen eta SGA beraren bide-orria lantzen ari dira. Bestetik, industrian eraldaketa digitalerako estrategia garatzen ari dira gaur egun. Nodo 4.0 aholkularitza 20 enpresen diagnosi digitala egiten ari da eta, horretarako, lantegietara bisitak egiten ari da. Horietako 8 aukeratuko dituzte gero azterketa sakonagoa egiteko. Estrategiak, jakina, hurrengo urteetan segida izanen du. Azkenik, digitalizazioa energiaren esparruan txertatu nahi dute ere.

Hizkuntza gutxituetako hedabideen berri izateko

Lastailaren 20an izanen da Altsasuko Iortia kultur gunean. Izen ematea zabalik dago

SAKANAKO




Nafarroa Oinez ospakizunarekin batera batetik

bestera doa Txikiak Handi proiektua, munduko hizkuntza gutxituen handitasuna aldarrikatuta eta haien arteko zubiak eraiki nahi dituen egitasmoa. Inigo Aritzta ikastolak proiektuari segida eman dio eta, Sakanako Mankomunitatearekin batera, hizkuntza gutxituetako hedabideen topaketa antolatu du. Bertan Irlanda, Gales, Mexiko, Euskal Herria eta Europako esperientzien berri izateko aukera izanen da. Topaketa hilaren 21erako, larunbata, Nafarroa Oinez bezperan. Izen ematea Internet bidez egin daiteke, igandera arte.

Topaketako hizlarien artean daude: Johan Haggman (Hizkuntza gutxituen inguruan Europako Batzordean 10 urtez lanean ibilia, Hizkuntza Gutxituen Batzordean eta Eleaniztasuna Batzordean), Idurre Eskisabel (kazetaria, antropologoa eta EHUko irakaslea) eta Juan Kruz Lakasta (Euskalerria Irratiko kazetaria) eta Mexikoko, Galesko eta Irlandako hedabide banako ordezkariak. Hirurek euren esperientziaren berri emanen dute. Topaketa despeditzeko eztabaida irekia izanen da.

Esataria: Eneida Gaurko gaiak:

- Juan Erdoziarekin Euskal Herria Kantuz ekimenaz
- Sagrario Aleman euskaltzainarekin euskara batuaren 50. urteurrenaz
- Joseba Ezkurdiarekin lau t'erdiko txapelketaz



Ostiralero 9:30ean

SAIOA

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

107.3 FM
beleixe
guaixe.eus-en ON LINE



Igandean izanen da abereen erakusketa eta ekoizle eta artisauen azoka. ARTXIBOA

Ferietako astebururako Etxarri Aranatz prest dago

Azienda plazara etzi goizean aterako dute. 24 artisau eta ekoizleren azoka izanen da. Kirol eskaintza ere bada

ETXARRI ARANATZ

Garai bateko festak ospatzen ziren garaia gaur egun feriak dira Etxarri Aranatz. Eta ospakizun horiei asteburua eskainiko zaie. Munduko Arrozak ekimenarekin abiatuko da egitaraua bihar eguerdian. Arratsaldean haurrendako eskaintza zabala izanen da. Igande goizeguerdian, berriz, herriko hazienda ikusteko aukera izateaz aparte, 24 artisauk eta ekoizlek euren produktuak zuzenean saltzen ariko dira. Aldi berean, mendi lasterketa eta Euskal Herria kantuz izanen da. Azken hori da ferietako berritasuna eta kantuzaleak erakartzea helburu duena (ikus azken orria).

LARUNBATA 6

12:00 Ongi etorri munduko zapoak. Europako mugen egoera salatu eta jatekoaren bitartez herriko aniztasuna plazara atera. Hainbat lurraldeetako jatekoen dastatzea, argazki erakusketa, arabiar idazkera tailerra. Sakana Harrera Harana.
13:00 Etxarri Aranatzko erraldoi eta buruhandien konpartsa.
17:30 Talo tailerra Saralegitarrakin.
18:30 Bordetxe abere zirkua.
20:00 Karrikextu elkarteak eskainitako auzatea.
20:00 Salbea, elizak antolatuta.
20:30 22:00etara Dantzaldia Tximeleta taldearekin.
22:0 Zezensuzkoa.
00:00-03:00 Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

IGANDEA 7

10:00-14:00 Etxarri Aranatzko abereen erakusketa. Ekoizle eta artisauen azoka.
11:00 XLIII. Mendira joan-etorria. Udaberri elkarteak antolatuta.
11:15 Auzatea Larrañeta elkarteak eskainitako auzatea.
11:30 Euskal Herri Kantuz. Eguerdian bazkaria estalopean eta arratsaldean plazan kantuz.
11:30 Sakanako Artzainen XV. Gazta Txapelketa.
17:30 Pilota partidak Euskalerriari frontoian.
 Olatz Ruiz de Larramendi-Irati Igoa / Yanira Aristorena-Maite Ruiz de Larramendi
 Joanes Bakaikoa / Aranguren (promozioko 4 1/2ko final laurdena)
 Arretxe II. - Adur Lasa / Ugalde-Erostarbe
18:00 Haurrendako Goloka taldearen Wolingen garatxoa txotxongiloa.
19:00-22:00 Dantzaldia Ken bat taldearekin.
21:00 Zezensuzkoa.



Egitarau zabala gaztetxearen urteurrena ospatzeko

1990eko lastailaren 5ean okupatu zen eraikina. Lastailean urteurrena gogoratuko dute

ALTSASU

Altsasuko Gazte Asanbladako (AGA) kideak sorostetxea hartu zuen etxea okupatu zutela 28 urte bete dira gaur. Eraikinak ordutik gaztetxea hartzen du. AGAko kideek urteurrena ospatzeko egitarau zabala prestatu dute lastailerako. Haren leloa loraldiaren udazkeneko lorea da. Egitaraua asteartean gaztetxean bertan egindako auzolanaekin eta auzatearekin abiarazi zuten. Herenegun batzarra izan zuten 19:30ean. Hala egingen dute hurrengo bi asteazkenetan. Gaurtik aurrera egitaraua aletuko dugu.

OSTIRALA 5

17:00 Haurren txokoa.
20:30 Txupinazoa eta auzate-poteoa.
22:00 Gaztehood Remenber Fest.

LARUNBATA 6

12:00 Kalderete txapelketa eta bazkaria.
16:30 Jolasak.
17:30 JayKay & PVD Returns.
21:00 The Trikiteensen kontzertua.

OSTIRALA 12 EGUN ARROTZA

10:00 Herri eskola. Palestinari buruzko hitzaldia.
20:30 Pintxo-potea gaztetxean.

DOMEKA 21 NAFARROA OINEZ

Egun guztian irekita egonen da.
20:30 Juantxo Skalari eta Rude Banden kontzertua.

OSTIRALA 26 FERIAK

20:30 Pintxo-potea gaztetxean eta Tokan 2 La Pollaren kontzertua.



San Migelen omenezkoak

Ondare taldeko Antonio Uhartek, Zuriñe Beltzak, Ricardo Goikoetxeak, Unai Martinezek, Ismael Martiarenak eta Jose Javier Beltzak eman zioten festei hasiera ostiral eguerdian. Udalak haiek egindako lana aitortu zuen: Agiri despopulatuko elizako hormak sendotu, bordetako teilatuak konpondu eta bideak garbitu edo zabaldu...



JUAN PEDRO HIGUERO

Festa txikiak joan dira

Aurtengo sanmigelak olaztiarren dolu sentipenarekin hasi ziren, istripuan hildako herritarra gogoan zutelako. Kultur etxean xingola beltz handia jarri zuten horregatik. Olatzagutia-Urba mendi lasterketako orain arteko antolatzaile taldearen izenean Fermin Gabirondok eta Joxan Markezek piztu zuten festetako etxajua.

Extremadura ezagutarazteko

La Encina Extremadurako kultur elkarteak erkidego hura ezagutarazteko eta kideen arteko erlazioa sustatzeko asteburu bete ekintza antolatu zituen. Pregoilaria Julia Hernandez Valles izan zen, Euskadiko Arartekoaren ondokoa. Hark Extremaduraren kultura, paisaia, hiri aniztasuna goraiatu zuen eta hura ezagutzera gonbidatu zuen.



Bizimodu osasuntsua sustatzeko akordioa

Ariketa fisikoa sustatzeko udalak eta osasun etxeak sinatu duten akordioan garatuko den aurreneko puntua osasun-pasiak dira. Bi erakundeek gaixo kronikoekin eta gizentasuna duten haurrekin lan egiteko ekimenak martxan dituzte aurretik

ALTSASU

Ariketa fisikorako eta osasunerako Altsasuko programa. Udalak eta osasun etxeak programa hori garatzeko esparru-akordioa sinatu dute. Osasuntsu egon edo gaixo kronikoa izan, altsasuar guztiei zuzendutako programa da. Horren aurreneko jardura osasun-pasiak izanen dira. Adostutakoaren arabera, medikuak izanen dira altsasuarrei osasun-pasiak egitea aginduko dietenak, haren jarraipena eta ondorengo ebaluazioa egingen dutenak. Altsasuko Udaleko Kirol Sailak eta beharrezkoak diren gainerrako udal langileek, berriz, antolatuko dute pasia eta haren berri zabalduko dute.

Sara Salazar kirol teknikariak azaldu digunez, "pasieran ibiltzeko, herrian barna eta herri-inguruan, hainbat ibilbide zehaztuko ditugu. Horien guztien datuak (luzera, beharrezko denbora...) liburuxka batean jasoko dugu. Eta hori izanen da medikuak kontsultan izanen duena eta, gaixoaren arabera, ibilaldi bat edo beste egitea aholkatuko dio". Kirol teknikariak azaldu digunez, osasunerako onak diren ibilbide horien berri emanez panelak jartzeko asmoa dute. Salazarrek azaldu digunez, Altsasuko Sakanako proiektu



Aurreneko jardura osasun-pasiak izanen dira. ARTXIBOA

pilotua izanen da gero beste herrietara zabalduko dena, Bertan, Zahartze Aktiborako Estrategiaren zati baita. Azken hori ibarreko makina bat eragilek ondutako plangintza da, Bertan dira, besteak beste, Sakanako Garapen Agentzia, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak...

Altsasuko kirol teknikariak gogorarazi duenez, ez da udalak osasun etxearekin elkarlanean antolatutako aurreneko jardura. "Gaixo kronikoendako ariketa saioak daude. Begiraleak programa berezi bat garatzen

du. Duela bi urte dago. Bestetik, haurren loditasunari aurre egiteko pediatrarekin elkarlanean ari gara, propio prestatutako saioak astelehenero eta asteazkeneko dira, 17:00etan". Esparru-akordioa izanik, etorkizunean egin daitezkeen elkarlan gehiagoren oinarria izan daitekeela gaztigatu du Javier Ollo Martinez alkateak. Altsasuko Udalak eta Altsasuko osasun etxeak esparru-akordioan jasotakoa betetzen eta egoki garatzen den aztertzeko jarraipen batzordea sortu dute.

Musika eskolendako 81.102,66 euro eman ditu gobernauk

Irurtzango, Lakuntzako, Etxarri Aranazko, Altsasuko eta Olatzagutiko udalek jaso dute diru-laguntza

SAKANA

Udal musika eskolen aurrekontua osatzeko hiru bideetatik biltzen da dirua: udalek egindako ekarpenak, ikasleen matrikulak eta Hezkuntza Departamentuaren diru-laguntza. Fi-

nantza arloak eragindako krisiarekin foru administrazioak musika eskolen jardunaren zama udalen eta familien bizkar utzi zuen. Hezkuntza Departamentuak jakinarazi duenez, aurten 2,2 milioi euro banatu ditu 51 mu-

sika eskolen artean eta 2010ean egindako inbertsioetara bueltatzea eta murrizketak lehenagoratzeara lortu duela ziurtatu du. Departamentutik beretik aurreratu dute hurrengo urteko diru poltsa 2,5 milioi eurokoa izanen dela. Diru-laguntza jaso duten udal musika eskolen artean ibarreko bost daude: Irurtzun, 18.888,63 euro; Lakuntza, 14.743,1 euro; Etxarri Aranatz, 24.654,96 euro; Altsasu, 19.309,42 euro eta Olatzagutia, 3.506,55 euro. Guztira, 81.102,66 euro.

Parte-hartze aurrekontuetarako 10 proposamen aukeran

Etzira arte eman daiteke botoa www.olazti.eus bidez edo asteburuan kultur etxetik pasatuz

OLATZAGUTIA

Olatzagutiko Udalak aurreneko aldiz parte-hartze aurrekontua martxan jarri du. 20.000 euro bideratuko ditu herritarrek aukeratutako inbertsiorako. Olatziarrek proposamenak egiteko aukera izan dute iraileko azken bi astetan eta udalak haietako 10 aukeratu ditu. Horietako bat aukeratzeko garaia iritsi zaie olaztiarrei. 16 urtetik gorako herritarrek gogoko proposamen bakar baten alde botoa emateko aukera izanen dute.



Olatzagutiko ikuspegia. ARTXIBOA

10 proposamenak

Hilerrian horma hilobiak, kolunbarioak eta hezur tokiak eraikitzea; kiroldegiko gelak talde handiak erabili ahal izateko egokitzea; igerilekuetako aldagelak berritzea; eguberriko argi berriak erostea; argiteria publiko eraginkorragora aldatzea (LEDA); inguraketa kaleko urbanizazioa bukatzea, Arrongatik jubilatuetara; kiroldegian hobekuntzak (dutzak konpondu eta ur beroaren sistema hobetu); kirol-azpiegituretan hobekuntzak egitea (saskibaloia sustatzeko saskiak jartzea, kiroldegiaren atzeko aldean minibasket edo

areto futboleko zelaiak egitea eta areto futboleko pista konpontzea); udal igerilekuen hobekuntza (zuhaitz gehiago landatu, taberna inguruan eta sarreran arkitektura-oztopoak kendu, mahaiaik eta aulkiak jarri, igerileku handiko dutzak aldatzea), hiri altzariak jartzea (ur biltegiko bihurtunean eta Batuekon merendulekuak egiteko mahaiaik jartzea eta festetarako mahaiaik eta aulkiak erostea) eta Ziordirako bidean hesiak eta aulkiak jartzea.

TXIKIAK HANDITZEN: HIZKUNTZA GUTXITUETAKO HEDABIDEAK MUNDUAN

IRLANDA
Newman, Dublin
Celtic

GALES
The National Centre for Learning Difficulties, Cardiff

EUROPA
European Commission

MEXIKO
Secretaría de Educación Pública, México

EUSKAL HERRIA
Departamentuak, Euzko Legebiltzaria

TOPAKETA
Proiektuak: 1. Irurtzun, 2. Lakuntza, 3. Etxarri Aranatz, 4. Altsasu, 5. Olatzagutia

EGITARAUIA
1. Irurtzun: 11.200 - 12.200
2. Lakuntza: 14.743,1
3. Etxarri Aranatz: 24.654,96
4. Altsasu: 19.309,42
5. Olatzagutia: 3.506,55

Antolatzaileak
Euzko Legebiltzaria, Irurtzun, Lakuntza, Etxarri Aranatz, Altsasu, Olatzagutia

Laguntzaileak
Euzko Legebiltzaria, Irurtzun, Lakuntza, Etxarri Aranatz, Altsasu, Olatzagutia

Logoak: Euzko Legebiltzaria, Irurtzun, Lakuntza, Etxarri Aranatz, Altsasu, Olatzagutia, Mank, garabide, Nafarroako Gobernua, Ostierako Gobernua



Dokumentalaren une bat. OLATZ IRIZAR

Herriko iragana kamera aurrean birsortzen

Ziordiko garai bateko bizimoduaren berri ematen duen dokumentala grabatu da asteburuan

ZIORDIA

Adin guztietako 73 ziordiarrek herriko garai bateko ohiturak eta lanak birsortu zituzten asteburuan. Ziordiar horiek guztiek euren aitona-amonon, izeba-osaben eta auzokideen papera jokatu zuten kamera aurrean. Labrit multimedia ekoiztetzeko teknikariak izan dira berriro Ziordira bueltatu direnak. Duela 12 urte materiala ez den Ziordiko memoria jasotzeko 8 elkarrizketa egin zituzten. Eta haieran esandakoan oinarritu da orain filmatu den dokumentala.

Olatz Irizar Martinez zinegotziak azaldu digunez, duela dozena bat urte egindako elkarrizketek 24 ordu inguruko iraupena dute. Haiek disko gogor batean opatu zituzten herriaren etxean. "Ez du zentzurik elkarrizketa horiek udaletxeko artxiboan gordeta egotea. Helburua grabatutakoa zabaltzea zen". Testigantza haiek jasotzen dituen

dokumentala egitea pentsatu zuten. Eta hura aberasteko elkarrizketatutakoek hitzez azaltzen zituzten gauzetako batzuk berregitea egokitzat jo zuten udalean.

Hala, kamera aurrean, esaterako, komentua zen eraikina oihal lantegia zela gogoraraziko du eszena jendetsu batek. Filmazio lanak despedituta, Ziordiri buruzko dokumentala Santa Luzia egunerako argitaratu nahi luketela jakinarazi digu Irizarrek. Hala ere, oharra egin du: "ezin dugu ziurtatu lortuko dugunik". Zinegotzia ziordiarrendako esker oneko hitzak ditu: "berregitean herri osoa busti da. Adin guztietakoak. Atrezkoa lortzen ere jende askok lagundu du". Irizarrek pena ere azaldu du: "8 elkarrizketa egin ziren bakarrik, jendea hiltzen doa eta testigantza asko jaso gabe gelditu dira. Horrek ez du atzera bueltarik".

Iruñean Intsumisioaren parkea mustuko dute

San Roke kalean zegoen espetxe zaharra 2012ko irailean bota zuen Iruñeko Udalak eta parke bat egin zuten. Parke horri Intsumisioaren parkea izena ematea erabaki du Iruñeko Udalak eta Pello Iraizozen oroigarria jarriko du. Hala, soldaduskaren kontra egin zuen mugimendu zabal hura eta gazte Nafarrek borroka horretan izandako li-

dergoa gogorarazi nahi du hiriburuko udalak.

Parkea bihar mustuko dute eta, propio, egitaraua prestatu dute. 11:00etan kalejira antimilitarista abiatuko da baratxuriaren plazatik, Broken Brothers Brass Bandek girotuta. 12:00etan mustuko da plaza eta 12:30ean Tonino Carotoneren kantaldia izanen da. Despeditzeko, 14:30ean bazkari intsumisioa izanen da. Soldaduskaren kontrako mugimenduan aritutako hainbat sakanarrek parte hartuko dute.



Ana Carmen azalpenak ematen. XALOK

Bertako produktuak sukaldeko izar bihurtuta

Sukaldaritzta tailerretan izena emateko: 672 688 591 edo nviana@sakanagaratzen.com

SAKANA

Udazkena 0 km sukaldaritzta tailerrak antolatu ditu Sakana Garapen Agentziak (SGA). Udaberrian egin bezala, agentziak Sakana bertako produktuekin otordu osasungarriak nola prestatu daitekeen erakutsi nahi digu sakanarrei. Horretarako, udaberrian tailerrak eman zituen bikote bera ariko da oraingoan ere irakasle lanetan: Ismael Alegria (Kale Txikiko sukaldaria) eta Ana Carmen Uhartte (Xalokeko dietista nutrizionista).

Lastaileko hiru saioetan Sakana txekor haragia prestatzen irakatsiko dute. Lastailaren 10ean bazkari eta afari menuak prestatuko dituzte. Lastailaren 17an menu dotorearen txanda izanen da eta, despeditzeko, lastailaren 24an barrukiak prestatuko dituzte. Tailerrak Ziordiko Errekakartea elkartearen izenarekin dira.

Azaroan euskal txerriak prestatzeko lau tailer egingen dira Arbizuko Aldabide elkartearen. Aurrenekoa azaroaren 7an izanen da eta bazkari-afari menuak prestatzeko eskainia izanen da. Azaroaren 14an menu dotorearen txanda da. Hurrengoan, azaroaren 21ean ttuper-menuaren txanda izanen da eta, despeditzeko, Dastatu Sakana saioa izanen da. Saioak 19:00etan hasiko dira.



Saia larrean. ARTXIBOA

Ibarrean dauden hegaztiak ezagutzeko aukera

Hitzaldiak eta bisita gidatuak antolatu dituzte asteburu honetarako eta bi aste barrurako

SAKANA

Txori guztiak berdinak ez direla gauza jakina da. Bata bestetik desberdintzeko tamainari, koloreari, gorpuzkerari edota hegan egiteko moduari erreparatzea nahikoa da. Beste kontu bat da txori bakoitza bere izenez izendatzea eta hegazti bakoitzaren ohituren berri izatea. Horretan trebatu nahi dutenek *Sakanako hegaztiak ezagutu* doako ornitologia jardunaldiak dituzte. Bi asteburu hartuko dituzte jardunaldiek eta bina hitzaldiz eta irteera gidatuz osatuta daude. Mirua enpresa lakuntzarraren ardura da jardunaldiak antolatzeko. Dohainik bada ere, izena ematea ezinbestekoa da. Horretarako info@mirua.com e-postara idatzi edo 608 560 369 telefono zenbakira hots egin behar da. Saioak Miruako Gorka Gorospe ornitologoaren ardura izanen dira.

Txistor Egunaren aurretik elikadura burujabetzaz

Arbizuko Udalak antolatuta X. Txistor Eguna ospatuko da lastailaren 14an. Baina haren aurretik, ostegunean, elikadura burujabetzari buruzko mahai-ingurua antolatu du. Elikadura burujabetzaren aldeko eta kontsumitzaile elkarteetako ordezkariekin batera, erakundeetako ordezkariak izanen dira ere. Udaletxean, 19:00etan, da.

OSTIRALA 5

18:30-19:45 Sakanako ornitologia aberastasuna. Habitat bakoitzean zer opatu dezakegun, noiz eta nola behatu azalduko da.

LARUNBATA 6

09:30-13:00 Basoetako eta zelaletako hegaztiak. Bezperako praktikan jartzea.

OSTIRALA 19

18:30-19:45 Hegaztien eta miruen migrazioa Sakanan. Hegazti ugari ibarretik pasa eta gelditzen da.

LARUNBATA 20

09:30-13:00 Migrazio-hegaztiak. Bezperako ikusteko ibilaldia. 16:30-19:00 Miru gorriak Sakanan. Bezperan azalduko ikusteko.

Irurtzunen taldeka Euskaraldia bultzatzen

Euskararen erabilera sustatzeko ariketan parte hartzeko izena ematen hasi dira irurtzundarrak www.euskaraldia.eus-en. Ahobizi edo Belarriprest izateko konpromisoa hartu dutenak, taldeka argazkiak egiten ari dira, haiek zabaltzeko Euskaraldiari bultzada emateko. Argazkiak egiten dutenek 3itzi3@gmail.com e-postara bidali ditzakete.



Patxi Arakama Zufiaurre saria jasotzeko momentuan. NAFAR GOBERNUA

"Saria jasotzea beti da ona"

PATXI ARAKAMA ZUFIAURRE KATEALDEKO BURUA

Patxi Arakama Zufiaurre Katealde enpresako buruak nekazal elikagaien ataleko Autonomoen Lanaren Aitorpen Saria jaso zuen asteburuan

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Patxi Arakama Zufiaurre produktu ezezagun bat hartu zuen eta asko arriskatuta enpresa bat sortu zuen: Katealde. Ahatearen produktuak egiten aditua da. Hasierako urteak gogorak izan zirela aitortzen du, baina hogeitamar urte hauetan izandako jardunari esker, Nafarroako Gobernuak banatzen dituen Autonomoen Lanaren Aitorpen Saria jaso zuen asteburuan. Sari banaketa ez ezik, Lan Autonomoaren Feria egiten da ere.

Nola hartu duzu saria?

Niretako sorpresa izan zen. Banekeen sari hauek existitzen zirela, baina gutxi gehiago nekien. Hau bigarren edizioa izan da eta iaz jaso zuena ezagutzen dut. Baina ez nekizkien datak, ez ezer. Cedernak nire hautagaia aurkeztu zuen. Ez dakit hautagai gehiago egon ziren edo nola

zihoan aurkeztearena. Baina proposamena egin zidaten eta baietz esan nien, izan ere, egiten duzunaz hitz egitea eta sari bat tartean egotea ongi dago. Baina ez nuen espero. Sorpresa izan zen duela hiru aste Nafarroako Gobernuaren deia jaso nuenean eta esan zidatenean irabazlea nintzela. Sorpresa handia izan zen. Egia da honi buruz hitz egin nuela, baina ez nuen oroitzen.

Feria bat ospatzen da ere. Aurkeztu zineten?

Bai, baina guk ez genuen erakusketa jarri. Sari banaketa

"AUTONOMOA IZATEA GOGORRA DA, NIK ETXEAN IKUSI NUEN, ETA HALA ERE AURRERA EGIN NUEN"

Baluarteko beheko solairuan egin zen. 11:00etan hasi zen eta 14:00ak arte egon ginen, gutxi gora behera. Hitzaldiak eta egon ziren ere. Eta goiko solairuan autonomoen produktuen erakusketa zegoen. 150 stand inguru zeuden. Produktu asko zeuden, baita enpresa asko erakusketa egiten ere. Harritu ninduen hainbeste egotea. Hala ere, egia esan, ez nuen gure sektoreko stand asko ikusi. Baziren, baina gutxi. Produktu teknologiko asko zegoen. Denetarik zegoen baina gure sektorekoak ez zeuden asko.

Zergatik autonomoa izan?

Ez dakit barruan eramaten dugun zerbait den edo eroak garen edo autonomoak izateko predestinatuta gauden. Ikasketak bukatu nituenean enpresa batean lanera sartu nintzen eta behin betiko kontratua egin behar

zidatenean, autonomoa egingo nintzela esan eta joan nintzen. Gurasoak autonomoak izan dira biak. Askotan kekatzen gara autonomo izatea gogorra dela, eta arrazoiak ditugu kekatzeko autonomoa izatea batzuetan oso gogorra delako; baina nik betidanik bizi izan dut etxean. Eta, hala ere, ni ere autonomo egin naiz. Etxean betidanik bizi izan dut horrekin eta denetarik bizi izan dugu: gorriak ikusi ditugun uneak, baita poztasun handiko momentuak ere. Baina, bai, autonomoa izatea gogorra da. Etxean gogorra zela ikusi nuen eta ez dakit buruan neukan zerbait zen, eta aurrera egiten duzu.

Sari bat jaso duzu, ongi egiten duzunaren seinale, ez?

Hemen jarraitzen dugu 30 urte ondoren. Zerbait ongi egin dugula uste dut. Abentura honekin hasi ginenean ez nuke imajinatuko honaino iritsiko ginela. Produktua ezezaguna zen eta aurrera egin genuen. Bagenekien zer nolako produktua nahi genuen, baina munduari azaldu behar genion. Produktu bat oso ongi egiten duzun arren, jendeak ez badu ezagutzen, ez du ezertarako balio. Lehenengo hastapenak oso gogorak izan ziren.

Beraz, duela 30 urte hasi zinen. Hasierako lau edo bost urteak ikasten egon ginen. Frantzian ohitura handia zegoen produktu hauekiko, baina hemen ez. Orduan Frantziara asko bidaiatu genuen ikasteko nola egin behar genituen gauzak. Gero etxean ikasitakoa praktikatzeko genuen. Hainbat urtetan beste gauzetan lan egiten egon ginen, baina ikasketak urteak izan ziren. 1990ko urtean bai atera ginen kalera markarekin. Beraz, 28 urte daramagu markarekin.

Produktua ezezaguna zen hasieran, eta urte hauetan asko garatu da. Enpresa produktuarekin batera garatu da?

Bai, guztiz. Inguru honetan foie-a gehiago ezagutzen zen mugaren ondoan gaudelako. Baina hegoaldera joanda ez zuten ezagutzen. Patea zela uste zuten eta zerbait ezberdina zela azaltzen

"UDABERRIAN GERTATUTAKOA IKARAGARRIA IZAN DA, EZ DUGU INOIZ AHAZTUKO"

zenuenean eta prezioa ikusten zutenean denetarik esaten zizuten. Are gehiago, confit edo magretari buruz hitz egiten genuenean. Produktuak ezagutzen joan dira eta gaur egun Espainiako estatua munduko bigarren kontsumitzaile da. Askok aurreratu gara eta oraindik asko ikasi behar dugu.

Zenbat produktu dituzue?

Ahatearen inguruan produktu asko ditugu. Foie freskoa, magret, ahate urdaiazpikoa, eta gero pateak, mousseak... Ahatea eta antzar produktuak dira nagusi. Txerri pateak egiten dugu ere, baina luxuzkoa da. 90 produktu baino gehiago ditugu.

Non saltzen duzue?

Saltzen dugu leku guztietan. Lantokian denda bat dugu, ferrietan, denda tradizionaletan, ostalaritzara bideratutako dendeta, banatzaileak ditugu ere. Gainera, Soroa marka dugu ere supermerkatuetan saltzeko marka. Esportatzen hasi gara orain. Ez asko, baina esportatzen dugu. Handitzen ari gara baina bat-batean asko aldatu gabe, izan ere azkar handitzean baloreak galtzen dira.

Zer moduz doa negozioia?

Bi urte oso zailak pasa ditugu. Hasieran krisia izan zen eta hobetzen zihoazenean hegazti gripea agertu zen. Ahatean gogor jo zuen eta prezioak garestitu dira. Kalitatezko lehengaiak lortzea zaila da. Dirudienez gauza normalizatzen ari da, oraindik ez da guztiz hobetu, baina bagoaz. Gauzak bere lekuan jartzen ari dira.

Udaberrian produktu bat kutsatuta zegoela zabaldu zen. Atzean gelditu da pasarte hori?

Hori ikaragarria izan zen. Ezin izango dugu inoiz ahaztu. Hor gelditzen den zerbait da. Bezeroen aldetik uste dut ez dela nabaritu. Erorsteari utzi dion jendea dagoela suposatzen dut, baina ez dugu asko nabaritu. Lehenengo hilabetean bai nabaritu genuen, baina hirugarrenetik aurrera hobetu zen gauza. Baina ikaragarria izan da, ezin dut kontrakorik esan. Desohorea hor gelditzen da. Interneten sartu eta dena ongi zegoenaren albistea aurkitu aurretik kontrako berrogei artikulua ikusten dituzu. Hori ezin da konpondu eta oso gogorra da. Baina elkartasuna ere nabaritu genuen, eta oso polita izan zen.

Eskola uzteari aurre egiteko programa

Eskola porrota eta eskola uztea hezkuntzarekin loturarik ez izatearekin oso erlazionatuta daude. Hezkuntzan arrakasta izateko, beraz, ikasleek ikasketekin lotura emozionala, kognitiboa eta soziala izatea nahi da

ITURMENDI / URDIAIN / OLATZAGUTIA

Iturmendiko, Urdiaingo eta Olatzagutiko eskoletako ordezkariak Proeducar-Hezigarri programan parte-hartzen asteartean hasi ziren. Sare horretan Nafarroako beste 37 eskola daude. Nafarroako Gobernutik gogorarazi dutenez, "hezkuntzaren erronketako bat da, sistemak ez dezala inor atzean utzi. Izan ere, hezkuntza, orokorrean, gizarte batek mota guztietako desberdintasunak konpentsatzeko duen tresna onena da"

Hezkuntza Departamentuak Hezigarri programarekin lortu nahi du "ikasle guztiak gizarte eta lan arloko bizitzarako beharrezkoak diren gaitasun guztiak sortzeko gai izatea. Horrela, eskola-porrota eta eskola uztea ekidinez". Departamentutik gaineratu dutenez, "programa gizarte arloko prestakuntza sustatzeko eta berdintasunerako bidean aurrera egiteko tresna da. Hezkuntzan arrakasta lortzeko ezinbestekoa da ikasleek eta beraien familiek ikasketarekin lotura emozionala, kognitiboa eta soziala lortzea".

Hezigarri programak irakasleak trebatzen ditu. Baina, horrekin batera, ikastetxeen antolakuntza eta metodologia



Ikastetxeetako ordezkariak talde txikitan ere aritu ziren asteartean. NAFARROAKO GOB.

eraldaketa dakar ere. Batzuetan ikastetxearen arkitektura osaran ere eragina du. Ikastetxeen eraldaketa hiru jarduerara idoz segituz egiten da: metodologia inklusiboak, elkarbizitza sustatzea ikasgelan egiten den lan emozionala, eta familien eta komunitatearen partaidetza ikastetxean.

Lankidetzan oinarriturik, hiru fasetan ezartzen da programa eskola bakoitzean. Lehenik, eskolaren hasierako egoerari buruzko gogoeta, partekaturiko diagnostikoa eta hobekuntzara-

ko proposamenak egiten dira. Bide batez, eskolarako amets bat definitzen da. Ondoren, inklusiora eta partaidetzara darman norabidean aurrera egingen duten antolakuntza eta curriculum arloko neurriak indarrean jarriko dituzte, haien eraginaren ebaluazioa eginez. Eta, azkenik, ikastetxearen "nortasuna" oinarritzeko adostu diren neurrien eta jardunbideen sistematizazioa egingen da. Programan parte hartzen duten ikastetxeek esperientziak trukatzeko sarea osatzen dute.

Urrutiko ingeles ikasketako tutoretzak Altsasun

That's English urrutiko ikastaroa egiten dutenek tutorea Altsasun izanen dute astean behin

SAKANA

Urrutiko ikasketa sistemarekin ikasleek ez dute ikastetxeetara, ezta klasera joan beharrik. Bakoitzak bere erritmoan ikasten du eta, aldiaren behin, tutorearekin hitzordua izaten du aholkuak, argibideak eta bestelako irizpideak jasotzeko. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak ingeleseko ikastea denon eskura jartzeko asmoz, *That's English!* ingelesezko urrutiko ikastaroa du. Haren bidez ziurtagiri ofiziala lor daiteke. Hezkuntza Departamentuak eta Hizkuntza Eskolak ikastaro horrekin kolaboratzen dute.

Aurtego berritasuna da ikasleendako tutoretzak Altsasun emanen dituztela ere. Hezkuntza Eskolako Begoña Campos irakasleak astearteetan A1 mailako ikasleei tutoretza emanen die 16:30etik 17:30era. Hurrengo orduan A2 mailako ikasleekin arituko da. Ostegunetan, berriz, 16:30etik 18:30era B1 mailako ikasleekin izanen ditu tutoretzak.

Bestalde, ikastetxe publikoko eta hitzartuetako irakasleek hizkuntza eskola ofizialen bidez B2 Tarteko Maila eta C1 Maila Aurreratua kreditatzeko aukera izanen dute. Sakanan kreditazio ikastaroak antolatuko dira.

Itxipuru taldeak antolatuta, bigarren eskuko azoka

Itxipuru taldeak bigarren eskuko azoka antolatuta du iganderako, 11:00etatik 14:00etara, Irurtzungo Foru plazan. Aurten antolatzen duten hirugarren azokan Itxipurukoek arropa eta liburuak eramanen dituzte. Haien artean saltseatuz mauka ederrak opatzeko aukera izanen du azoka bisitatzen duenak. Hala ere, Itxipurukoen salmahaiak ez dira bakarrak izanen. Erabilitako objektuei bigarren bizitza eman eta bestelako kontsumo eredu bat sustatu nahi du taldeak. Eta ideia horrekin bat egiten duen edozeinek aukera du bere postua jarri eta han eramandakoak trukatzeko edo saltzeko. Taldekoek jendea horretara animatu dute.

Gizon olaztiarra moto istripuan hil zen ostiral goizaldean

45 urteko gizon ezko olaztiar bat moto istripuan hil zen joan den ostiralean, goizeko ordu bietan. Ezbeharrak A1 autobian izan zen, Altsasuko Txunkai irteeran. Motorrean zihola, ezagutzen ez diren arrazoiengatik bidetik eskuin aldera ateratzen eta errepe bazerreko babes-hesia jo zuen. Larrialdietako osasun zerbitzuak eta suhiltzaileen ambulanzia istripu tokira joan ziren baina ezin izan zuten ezer egin. Foruzaingoa arduratu zen ikerketaz. Domekan despeditu zuten olaztiarra, motorzale ugari presente zeudela. 2017an trafikoko istripuetan 3 sakandar hil ziren. Aurten zerrenda hori ostiralean mustu zen.



Amaya
Okindegi-gozotegia

Lantegia: Teileria Aldapa S/N
Altsasu
948 562 205

BM-supermerkatua

Araia (Araba)
945 314 572

Olazti
948 468 755

Etxarri-Aranatz
948 461 660

San Juan kalea, 50
Altsasu
670 389 017

Otadiako Kristo
Deuna Plaza, 19
Altsasu
948 562 185

Zumalakarregi Plaza
Altsasu
T. 948 468 026



Festetan Gure Etxea eraikinean izan zen informaziorako puntu morea.

Sexu erasoaren kontrako protokoloan aurrerapausoa

Altsasuko mugimendu feministak balorazio hori egin du festetako salaketa telefonoaz eta informazio puntuaz

ALTSASU

Altsasuko festetako sexu erasoaren kontrako protokoloa aurtengo berritasuna Gure Etxea eraikineko beheko partean egon zen informazio puntu morea izan zen. Horrekin batera, festetan egunero 24 orduz martxan izan zen salaketa telefonoa. Hori guztia Altsasuko mugimendu feministaren ekimenez egin zen, Altsasuko festa eremua "emakumeendako seguruagoa izanen dela bermatzeko". Festak pasata, baloraziorako txanda iritsi da.

Mugimendu feministako kideek, lehenengo eta behin gogorarazi dute festen aurretik sexu erasoaren kontrako prebentzio lana egin zela. Bi prestakuntza saio izan ziren: maskulinitate eta autodefentsa tailerrak. Azken horretan, "neska talde polita elkartu zen, autodefentsa feministan lan egiten jarraitzeko gogoz". Bi tailerretan izandako parte-hartzearekin "pozik daudela" gaztigatu dute mugimendutik.

Gune morea

Sexu erasoak pairatu zutenei, edo ikusi zutenei, horren berri emateko bi bide eskaini zizkieten festetan mugimendu feministatik. Gertatzen denaren berri jaso nahi izan zuten, beharrezko salaketa publikoa egin eta erantzun soziala eta politikoa eman asmoz. Festetan, 20:00etatik aurrera, Gure Etxea eraikineko beheko aldean gune morea zabaldu zuten. Ordu asko zirenez,

mugimendu feministaren inguruan dabilzan nesken artean deialdia egin eta "sekulako erantzuna" jaso zuten, "jende pila hurbildu zen eta boluntario horiekin guztiekin oso eskertuta gaude". Puntu morera jende askok jo zuela azaldu dute mugimendutik, "nahiz eta askok salmenta puntua zela pentsatu. Hala ere, plazan egotearekin, prebentzioa lantzen ari zen, ikusgarritasuna bultzatu genuen".

Telefonoari dagokionez, "karpaina handia egin genuen eta erasoak salatzeke erabili bazen ere, lehen urtea da martxan dagoela eta badakigu oraindik lana dugula aurretik, oraindik ez baitira eraso guztiak salatzen, oraindik ere jasaten ditugu... Baina ez ditugu publikoki salatzen edo erantzuten, ez dugu erantzuteko ohitura hori bereganatu oraindik. Baina bidean gaude! Eta espero dugu salaketa publiko hori eta erantzun hori normalizatzen joatea".

Horretaz guztiaz hausnartzeko eta gune morean egondako boluntarioen esperientziak, ideiak, hobekuntzak, aldatu beharrek, eta bestelakoez hizketatzeko, mugimendu feministako kideek boluntarioekin bilera eginen dute lastailean.

Bestalde, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak antolatuta, Mari Luz Esteban Galarza Altsasun izan zen astelehenean. Gorputzaren inguruan dauden planteamendu feministen historia laburra egin zuten.

Mintzakide, euskaraz suelta aritzeko modua

Euskara hitz egiteko aukera handirik ez duenak, edo ikasten ari denak hizkuntza praktikatzeko. Horiendako propio sortutako programa da Mintzakide. Astean behingo hitzordua da eta dagoeneko izena emateko epea zabalik dago

SAKANA

Hizketatu, mintzatu, solas egin, elekatu, xardoki... Hitz egitea esateko modu asko daude euskaraz. Eta euskaraz aritu nahi eta norekin ez dutenak hainbat dira gure inguruan. Edo euskara ikasten ari direnak eta praktikatu nahi dutenak era badira Sakanan. Haiendako guztiendako pentsatuta dago Mintzakide programa.

Astean behin ordu batez euskaraz hizketatzeko gelditzen dira. Talde txikietan eta nahi duten jarduera egiteko. Batzuk kafe baten bueltan elkartzen dira, beste batzuk pasieran ibiltzen dira, zinemara joanez, mendi buelta egin... Talde bakoitzak erabakitzen du noiz, nola eta non elkartzen diren. Euskaraz hizketatzeko gogoak batzen ditu. Haiekin, betik, euskaraz jarria duen bat egoten da, bideratzaila lanak egiten.

Mintzakide euskaraz hitz egiteko segurtasuna hartu nahi dutenendako aukera aproposa da. Gainera, bere inguruan dauden jende euskaldun batzuk ezagutzeko aukera izanen du. Hizkuntza ikasten ari direnen ikasketa prozesuan bultzada ematen du, belarria egin eta mihia askatzeko balio baitie. Hizkuntzaren ezagutza maila guztiendako baliagarria da programa. Gainera, Euskaraldian parte hartzeko entrenamendu bikaina izan daiteke. Hori guztia, dohainik.

Izen ematea zabalik

Mintzakide programan parte hartu nahi duenak izena emateko lau bide ditu: 600 482 024 telefono zenbakira hots eginez, sakana_mintza@aek.eus e-postara idatziz, Facebook-eko Sakanako Mintzakideak profila erabiliz edo, aurrez aurre, AEK-ren Itsasi euskaltegitik pasatzea (Altsasuko Gartzia Ximenez 46. zenbakia). Izen ematea zabalik



Ziordiko joan den urteko taldea. ARTXIBOA

dago. Eta, dagoeneko, aurreko urtean martxan zeuden Mintzakide talde batzuk hasi dira biltzen. Ihabarren eta Arbizon sortutako taldeak bilduko diren eguna, ordua eta lekua zehazteko dute.

Talde horietan sartzeko aukera dago. Bestela, talde berriak sortzeko aukera dago ere. Horregatik, Mintzakide programako arduradunek haiekin harremanetan jartzeko gonbidapena luzatu dute.

Mintzakide taldeak

Herria	Eguna	Ordua	Tokia
Iruztzun	Asteartea	09:05	Pikuxar
	Ostirala	17:00	Pikuxar
Arakil	Astelehena ¹	19:00	Egoitza ibiltaria
Ihabar	Zehazteko		
Arbizu	Zehazteko		
Urdiain	Asteazkena	19:00	Liburutegia
Altsasu	Astelehena	16:00	Koxka taberna
	Osteguna	20:00	Lezea taberna ²
	Ostirala	09:00	Kaixo taberna
Olatzagutia	Asteazkena	17:00	Agedi okindegian
Ziordia	Asteartea	16:00	Liburutegia

¹ASTELEHEN ZORIONTSUAK HILABETEAN BEHIN LIBURU, FILM EDO GAI BATEN INGURUAN HIZKETATZEKO HITZORDUA.

²ALTSASUKO EUSKALKIA PRAKTIKATZEKO TALDEA.

Udalak desfibriladorea jarri dute Iortia kultur gunean

Zelandi kiroldegian eta Dantzaleku kirol gunean tresna bana dago. Udal eraikin guztietan egonen da

ALTSASU

Taupa-taupa. Hala ibiltzen da bihotza, taupadaka. Baina bihotzaren erritmoa ez da pertsona guztietan bera izaten eta arritmikoa ere bada. Gerta daiteke arritmia horiek hilgarriak izatea, bihotza gelditu egiten delako. Halako kasu bat parean suertatzean tratamendu azkar bat lehenbailehen ematea ezinbestekoa da: larrialdi zerbitzua jakinaren gainean jartzea, bihotz-biriketako bizkortze oinarrizkoa egiteko maniobra egitea, desfibrilazioa eta zainketa mediko espezializatuak.

Desfibriladorearen egitekoa da elektrizitate deskarga baten bidez bihotza bere funtzionamendu egokira bueltatzea. Jende asko ibiltzen den tokia da kultur gunea eta ingurutik ere jende asko pasatzen da. Horregatik, Altsasuko Udalak desfi-

briladorea jarri du Iortia kultur guneko ezkaratzean, komunen pareko paretan. Trebatutako pertsona batek halako gailu batekin bihotzekoa izan duten pertsonen % 75en bizitza salbaturiko luke. Kultur guneko eta beste zerbitzuetako langileen dako 8 orduko trebakuntza ikastaroa eman zien.

Javier Ollo Martinez alkateak jakinarazi digunez, "urtero udal eraikin batean desfibriladore bat jartzea da asmoa, udal eraikin bakoitzean tresna bana egon arte". Horregatik, udal aurrekontuan diru sail bat dago, "bai desfibriladoreak erosteko, bai mantentze-lanak egiteko". Aurtun 3.500 euro bideratu dituzte erosketara eta trebakuntzara. Ollok esan duenez, Txirinbulo haur eskolako langileak trebatu ondoren, eztarriko tratatzeak ekiditeko tresna jarriko dute.



Utzubarren jarritako aska berria. ETXARRI ARANAZKO UDALA

Utzubar, atzera ere, aberendako bazkalekua da

Itxiturak konpondu eta berriak jarri eta aska jarrita, udazkenean 30 abere sartuko dira bazkalekura

ETXARRI ARANATZ

Zena izatera bueltatu da. Utzubarko basoa, hariztia, aberendako bazkaleku bihurtu du Etxarri Aranazko Udalak egindako inbertsioak. Sasiak janda, txarrantxa itxiturak egoera txarrean... "orain arte ezinezkoa zen abereak han sartzea, baldintzarik betetzen ez zuelako", azaldu digu Eneka Maiz Ulaia- rrek.

Alkateak egindako lanak zein diren argitu digu. Alde batetik, "abereek kalitatezko ura eduki dezaten aska berri bat jarri da". Lehen zegoen ur saretik 281 metroko ur ekarriera egin dute horretarako. Lan horiek egiteko 7.681,06 euro (BEZ barne) behar izan dituzte. Aurrekontu horren erdia Landa Garapenerako Departamentuak ordaindu du. Bestetik, abereak Utzubarko bazkalekutik ihes ez egiteko itxitura 780 metrotan konpondu dute eta beste 1.690 metrotan berria jarri dute. Hala, hariztiaren perimetro osoa itxita gelditu da. 20.293,91 euro (BEZ barne) behar izan dira inbertsio hori pagatzeko. Inbertsioaren erdia Nafarroako Gobernuak mendi sailak pagatu du.

Alkateak argitu digunez, "Utzubarko hariztian egindako inbertsioak Larre Plan berriaren barruan sartzen dira". Maizek jakinarazi duenez, "63 hektarea dauzkan baso eremu horretan asmoa da hogeita hamarren bat abere sartzea udazkenetik udaberriraino, bazkaleku bezala erabiliz". Utzubarko hariztiari

emandako abeltzaintza erabilera hori udalarendako diru-sarrerera berria dela ere nabarmendu du alkateak.

Egitasmoa

Maizek gogoratu digunez, "udalaren asmoa da, batetik, lehen sektorea eta bertako ekoizpena indartzea eta, bestetik, mendi abeltzaintza suspertzea eta paisaia eta bioaniztasuna hobetzea, harizti irekiak oso onuragarriak baitira horretarako".

Etxarri Aranazko Udalak legegintzaldi honetan egokitzen den bigarren baso-bazkalekua da Utzubarko. Basopokalen aberendako beste bazkaleku bat egokitu zen, Ganasa enpresa publikoaren eskutik esperientzia pilotua egiteko. 30 hektareako eremua hartzen du. Proiektu horren helburu nagusia da aztertzea abereak basoari kalte edo mesede egiten dioten. Horretarako, neurketa jakin batzuk egiten ari dira. Abeltzain etxarriarrak teknikarien esanetara daude. 2015eko azken bi hilabeteetan abere karga gutxiarekin sartu ziren eta teknikariak emaitzekin "pozik" gelditu ziren. Orditik hainbat alditan sartu dute ganaduzaleek abereak bazkalekuan. Beti ere, teknikariek esandako kopurua betez eta sarrera-irteerak datat errespetatuz. Alkatearen esanetan, "bi egitasmo horiekin Etxarriko Udala aitzindaria izaten ari da, mendi abeltzaintza suspertzen eta gure basoko bioaniztasuna indartzen".

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Euskaltzaindiak *Arantzazutik mundu zabalera (1968-2018)* XVIII. nazioarteko jardunaldia abiarazi zuen atzo eta bihar despedituko da. Akademiaren mendeurrenean euskara batuaren mugari izan zen 1968ko Arantzazuko biltzarra gogoan, hizkuntza estandarrak egindako bidez, egungo egoeraz eta erronkez ariko dira bihar arte.

Duela 50 urteko biltzar hartan Jose Mari Satrustegi euskaltzain arbazuarrak parte hartu zuen. Berak hizkuntza estandarraren inguruan bazuen iritzia eta hori ezagutzeko Principe de Viana aldizkariaren euskarazko gehigarrian argitaratutako artikuluetara jo dugu.


Batzarraren aurretik

Satrustegi aipatu gehigarriko kolaboratzaile fina izan zen. 1966ko otsailen argitaratu zen estreinakoz eta apirilko 3. zenbakirako arbazuarrak *Zorigaitoko h bat* artikulua idatzi zuen. Gehigarriaren aurreko bi zenbakietan "H madarikatu bat" agertu zela eta kexua jaso zuten, hura ez omen zen bidea: "erraz alde jota ere, aski lan izango du euskerak. Esaten ez diren guziak kendu eta kitto!"

Jasotako kexu harri erantzunez, Satrustegik nabarmendu zuen gehigarriaren asmoa "Nafarroko eskualdun famili guztitan sartzea" zela. Aitortzen zuen Nafarroan h-ren aldekoak eta kontrakoak zeudela. H-ak batzuetan ez zuela arazorik sortzen (zar edo zahar) baina besteetan bai (ari eta ahari edo zur edo zuhur) gaineratu zuen. Artikulua halaxe despeditu zuen arbazuarrak: "alderdikari izatea laike erabat alde batekoekin edo besteekin joatea. Bide erdi bat badago: bakoitzak beretik eskinak berdintzea. Artu, esate baterako, guk h bat (eman dezagun bokal artekoa), eta utzi, beste alderdikoek, gutxi balio duen beste bat (urthe, senhar eta modu hortakoak). Batasuneko bidean pausu bat emana legoke. Aberastu nahi ez duenak, pobre izateko bidea merke du".

Biltzarraren urtekoak

Arbazuarrak *Batasuna* izenburuko artikulua argitaratu zuen 1968ko garagartzaroko zenbakian. Hala hasi zen: "azkenaldi hontan euskeraren batasuna agotan da. Agotan eta buru-hauste gogo-



NEREA MAZKIARAN

San Migeli hutsik egin gabe

Aralarko santutegiak jendearen etengabeko joan-etorria hartu zuen larunbatean. San Migel egunak jendartean duen debozioaren erakuslea izan zen mendiko elizara gerturatutako jendetza. 5 meza aurreikusita bazeuden ere, azkenik, 6 izan ziren egin ziren elizkizunak: lau goizez eta bi arratsalde. Meza nagusia, gainera, Francisco Perez gotzainak eman zuen.



Euskaltzaindikoko kideak Arantzazun 1968an. EUSKALTZAINDIA

Batuari buruzko Satrustegirenak

Arantzazuko 1968ko Euskaltzaindiaren biltzarrean arbazuarra moderatzailea izan zen. Euskara batuari buruz zituen iritziak han-hemen jasoak daude. Guk Principe de Viana aldezkariko euskarazko gehigarrian argitaratutakoei erreparatu diegu.

rretan. Aspaldi beharra! herri atzeratuen kontua da, txoriari kaiola bezala, auzoari hesia egin eta aldekoen berri ez jakite". Zer egin galderari hala erantzun zion: "lehenbizikorik elgarren arteko aztapuak kendu. (...) Euskera guziak badute beren alderdi ona eta maila berean behar dute sartu. Orduan etorriko da elkarriketa. Bestela, betiko istiluak. (...) "

Bete beharreko oinarri hitzartu batzuen beharra sumatu zuen: "Oinarrিতako lehenbiziko legea jatortasuna. Ez hizkuntza baten edo bestearen jatortasuna, hitz bakoitz edo joskerena. Bigarren hedadura, nundik nora zabaldua den. Esan nahi da, jatortasun berdineko pundutan, ezagunena aurrean dela jokatu. Gero besteak. Azkenekotz, gerta laike gehienik zabaldua denak beste leku batzutan ez hori adieraztea.

Esate baterako, eztaí = boda. Hau da naski zabalduena. Hala ere, kontuan eduki behar, eztaí = bizitegi Baxenabarren. Eta nolabeit ezkontzako festari ezteiak".

Arbazuarrak hala laburbildu zuen bere ideia: "elgarrengana-ko begiramendurik haundienarekin hartu beharra daukagu batasunaren eginkizun hau. Ez ginuke ez garaile eta garaiturik gure artean behar".

Arantzazuko Biltzarrari buruz lastaileko zenbakian *Batasuna* izenburuko beste artikulua bat argitaratu zuen Satrustegik, eta

BATASUNAREN ALDEKO JARRERA IZAN ZUEN HASIERATIK, ERDI BIDEA DEFENDATUZ

zera zioen: "Euskaltzaindiak bere urre ezteietan lan iraunkor bati lotu nahi izan du eta ez zaio iduritu batasunarena baino beharrezkoagorik bazenik gure artean. Berdin idatzi behintzat, nahiz eta ez berdin esan gauzak.

Beste hizkuntzetan gertatzen dena". Biltzarraren martxaz: "saio luze eta sakonak, alde batetik, eta bestetik iritzi desberdinak. Baina jendetasun haundiarekin joan dira gauzak eta azkenean argia atera da". Ortografia, morfologia eta hiztegiaren batasunak egin zirela esan eta gaztigatu zuen: "Batasuna ez du Euskaltzaindiak egin behar, ezin luke egin. Batasuna euskaldun guziona egitekoa da. Euskal Akademia gidari dela. Orain ikusiko da zer-nolako haria dugun bakoitzak eta sakonagoko lanik etor laiken honen atzetik. Euskeraren eta Euskal Herriaren onerako batu gaitezen denok."

Ondorengo urteak

Arruazukoak *Batasunaren alorean* artikulua eman zuen 1970ko aurreneko zenbakian. Hizkuntza estandarren inguruan "era askotako" iritziak zeudela aipatu zuen. 60ko hamarkada erdialdean Iruñean izandako bilera batean entzundakoa gogora ekarri zuen: "«berrogeita hamar urteko gurutze-bide latza ibili ginuen batasunera iritxi baino lehen» esan ziguten katalandarrak Iruñeko bileran. Bide bera baderamagu ere, negargarri litzake gutaz beste horrenbeste esan beharra norbaitek. Nolanahi dela, gurekin edo gu gabe, batasunarena da etorkizuna".

Euskaltzain arbazuarrak gaineratu zuen: "batasunaren alore arantzaz josia harrapatu du, giroa gogor". Urte berri hartarako ametsa ere idatzia utzi zuen: "alkar hartu, bideak zelaitu, euskera batu... zer amets ederra!"

Urte bereko martxoan *Gipuzkera edo euskara batua?* artikuluan haren ingurukoa hala

laburtu zuen: "H zaleak, eskualde guzitara ideki nahia ikusten dute letra muttuan. Euskeraren batasun zabala. Anai arteko berdintasun. H-ren etsaiak, ikasia dute lehengo, oraiko eta betiko euskera nagusia, eta ez dute inungo txertorik nahi. Batasuna bai, baino berena". Arantzazuko biltzarra gogora ekarri zuen: "alderdi baten hitza bakarrik entzun omen zen Arantzazun. Ametsetan ez banabil, han zuen alderdi ixil horrek esan «beste batasun bat zertako!», euskeraren batasuna erdi egina zegola eta beste erdia bide onez zijoala. Gipuzkeraz zela gehienik idazten eta gipuzkera, gaurkoan, gehienik mintzo. Utz ginezan bidea zabalik, gipuzkerak ekarriko zuela euskeraren batasuna".

Satrustegik bere iritzia eman zuen idatzi hartan: "Arantzazun esandako printziarren batasunari bultzada ederra eman zaio Napparroan". Gaineratu zuen h-ak "buruhauste gutxi" ematen zizkiola gaineratu zuen: "batasunaren auzia ez baidago h kontuan, edozein eskoletako hurrek egun gutxiz hartzen dute. Besterik da azpitik dabilen jokua. Hitz gutxitan esateko, gipuzkera edo euskera batua hartu, dago zalanztan".

Manuel Lekuona euskaltzainburuaren "neutraltasuna" kritikatu zuen ere. "Berea ez dena baztatu eta berea besterenean leporaino sartzea, ez da neutral hitzari dagokion jokabidea. (...) Ez gatoz hortan zurekin batera. (...) Eman bezaigute ikasieneen batasun jatorraren argibidea, eta izan dezagun besteok ikasleen mailan entzuteko apaltasuna".

Artikuluak, eta gehiago, *Jose Mari Satrustegi: ereile eta leku-ko* liburuan daude jasoak.



"Sentsazio onekin nago eta horrek asko balio du"

JOSEBA EZKURDIA PILOTARIA

PILOTA Joseba Ezkurdiak eta Asier Agirrek asteazkenean egin zuten ostiralean Altsasun jokatuko duten Lau t'erdiko Txapelketako final zortzirenetako aukeraketa

Maidar Betelu ALTSASU

Astelehenean aurkeztu zuten, Bilbon, Lau t'erdiko Pilota Txapelketa. 12 pilotari lehiatuko dira, 2 multzotan banatuta. Joseba Ezkurdia izango da ordezkari sakandar bakarra.

Gaur, ostiralean hasiko da txapelketa Altsasun, final zortzirenak jokoa. Joseba Ezkurdiak aurreko urteko Promesen mailako txapeldun Axier Agirre izango du aurkari. Ondoren, A multzoko final laurdenetako ligaxkan, Aimar Olaizola eta Jokin Altuna -lesioaz osatzen bada- izanen ditu zain, Retegi Bi eta Victorren arteko partidako irabazlearekin batera. Final handia azaroaren 18an jokatuko da Nafarroa Arenan. Polemika-ekin hasiko da txapelketa, botileroen kontura. Izan ere, hemendik aurrera soilik enprestatiko teknikariak izan ahalko dira pilotarien botilero, eta enpresa berdineko pilotarien arteko partidetan botilerorik gabe aritu beharko dute pilotariak. Pilotari gehienak ez ziren ados azaldu enpresek hartutako erabakiarekin.

Altsasuko astearteko pilota aukeraketan, bezperan Soriako San Saturio Torneoako finala jokatetik zetorren Joseba Ezkurdia-Aretxabaletarekin osatu zuten bikoa eta 19 eta 22 galdu zuten Irribarriaren eta Zabale-taren kontra- eta nekatuta zegoen aurrelari sakandarra, baina burua Lau t'erdian duela ziurtatu zigun.

Asteburu mugitua izan duzu Joseba: larunbatean Codere Masterseko finala jokatuz zenuen Zabaletarekin, atzo (asteartean) Soriako San Saturio Torneoako finala... lehortuta egongo zara...

Bai, asteburu oso mugitua izan da, gogorra. Badakizu, kilometroak sartu behar, azken hila-betean partida asko izan dira eta frontoian behar bezala entrenatzeko denbora gutxi... bai-



Agirre eta Ezkurdia, asteartean Altsasun aukeratutako pilotekin.

"BOTILEROAK FIGURA GARRANTZITSUAK DIRA; GURE IRITZIA KONTUAN HARTU GABE KENDU DITUZTE"

na sentsazio onekin nago eta horrek asko balio du.

Lau t'erdia behar bezala prestatzeko tarterik izan duzu?

Abuztuko azken bost egunak nahiko lasai izan nituen, eta irailaren hasieran nintzen fisikoa entrenatzen. Fisikoa entrenatu dut, baina frontoia gutxi, egia esan. Entrenamendu espe-zifiko bat egin nuen Dariorekin San Mateo aurretik eta gehiago ez. Gaur sake batzuk egin ditut, aurreko astean beste batzuk... ea ostiralean nola etortzen garen Altsasura.

Asier Agirre duzu aurkari eta zu zara faboritua.

Azkenean faboritua izateak ez du esan nahi ziur irabazi behar duzunik. Partida zaila daukat, Axier oso gogorra da, oso gerre- roa da, eta nik nirea egin beharra daukat. Nik ez dut orain arte berarekin jokatuko, baina

ikusita iazko Lau t'erdiko 2. mailako txapelduna dela, zerbaitetik da. Pilotan asko jokatzen du. Ahaztu beharra ditut presioak, faboritua izateak eta kontu horiek guztiak eta nire jokoa ateratzea, hori da kontua. **Burunda lau t'erdirako frontoia egokia da?**

Frontoia estraño edo arraro batzuk egiten ditu, ez da oso noblea, baina askotan jokatuko dut bertan, ezagutzen dut eta ez da aitzakiarik. Atzo (asteartean) hiruretan etorri nintzen etxera, atsedean gutxi hartuta nago eta gaurko beroketa honetan eskuak kolpatuta nabaritzen nituen.

Ze pena Nafarroa Arenaren estre-noan, Codere Mastersean, Zabale-tarekin batera ez irabaztea.

Bai, pena. Polita zen guztiz beta zegoen halako frontoian, estre-no batean han egotea, eta pena eman zidan galtzeak. Ikusgarria da frontoia berria, kantxara ateratzera oilo ipurdia jarri zitzaidan: jendea oso gertu nabaritzen duzu, dena beteta... ikusgarria. Pantaila ere, nobedadea zen.

Lau terdiko finala han jokatuko da. Han egoteko txartelak garesti daude baina...


Bai, zaila dago. Lehendabizi ostiraleko Altsasuko partida: Agirre aurkari zaila eta nik nirea ongi egin beharra daukat partida ateratzeko. Eta gero final laurdenetako ligaxkan Aimar Olaizola eta Jokin Altuna daude zain. Bi pilotari handi, egungo txapeldun Aimar tartean. Talde zaila egokitu zait, egia esan.

Botileroen aferak polemika sortu du. Soilik enprestatiko teknikariak eraman ahalko dituzue botilero. Zuk ezingo duzu anaia edo Irujo eraman, esaterako.

Nik ez dut beste botileroak kentzeko erabaki hori logiko ikusten. Erabakia hartzeko ez dute gure iritzia kontuan hartu, gurekin kontsultatu. Botileroa izatea ongi dago. Partida barruan zaudela, 180 pultsazioetara, ez duzu behar bezala ikusten eta kanpotik beste batek hobeki ikus dezake. Figura garrantzitsua da niretzat, kendu digute eta pixkat amorratuta nago horrekin ere.

Akaso perfil tekniko baina gehiago psikologikoa behar duzue: zure anaia, laguna... ondoan egotea.

Denetatik behar da. Akaso zu jokaldi bat egiten itsututa zaude, erre ke erre, eta kanpotik esaten dizute "egin ezazu beste modu batera...". Eta alde teknikoaz gain, psikologikoki, partida mozteko garaian... garrantzitsua da botileroen papera, animoak jasotzeko egiten duten lana. Beteranoek esperientzia gehiago dute akaso, baina nik uste dut ongi dagoela figura hori.



Altsasuko gaurko jaialdia

Gaur, ostiralean, 22:00etan, Altsasuko Burundan (ETB1)

Binaka

• Mendizabal III.a-Ladis Galarza / P.Etxeberria-Martija

Lau t'erdiko txapelketa

• Ezkurdia / Agirre

PILOTA Zabaleta pilotari onena San Saturioko Torneoan

Asteburuan jokatuko diren bi pilota torneoetan sakandarrak izan ditugu finaletan. Larunbatean Navarra Arena ikusgarria mustu zuen Codere Masterseko finala jokatuz zuten Ezkurdiak eta Zabaletak Elezkano II.aren eta Rezustaren aurka. Azken hauek Binakako finaleko errebantxa hartu zuten, akatsez jositako partidaren 17 eta 22 irabazi baitzieten pilotari sakan-darrei. Lautan berdindu zuten, baina 14 eta 15etik 14 eta 21era joan ziren zuzenean Elezkano II.a eta Rezusta eta torneo preziatua irabazi zuten.

Arantza ateratzeko aukera izan zuen Zabaletak asteartean Sorian. San Saturioko Torneoako finalean Irribarriarekin batera aritu zen, Altuna ordezkatu zuten Ezkurdiaren eta Aretxabaletaren kontra. Partida bikain eta ikusgarrian ongi aritu ziren guztiak, Zabaleta bereziki. Izugarri jo zuen Etxarangoak, eta azkenean 19 eta 22 irabazi eta torneooko onena izendatu zuten Zabaleta.



Euskal Herriko Erdigunea.

PILOTA EH Erdiguneko martxako bazkarira izena ematea zabalik

Urriaren 14an, Independentistak sareak, Iratxo Mendi taldeak eta Sakanako Mendizaleak taldeak Beriainetik gertu dagoen Euskal Herriko Erdigunera martxa antolatuta dute. Ondoren, herri bazkarian bilduko dira Irañetako bordan (helduak 12 euro, haurrek 6 euro). Urriaren 10era arte eman daiteke izena, (www.independentistak.eus edo 943 561 853).



R. de Larramendi eta Aristorena. ARTXIBOIA

Pilotari etxarriarren erakustaldia ferietan

PILOTA Irati Igoa, Yanira Aristorena, Joanes Bakaikoa eta Adur Lasa ariko dira igandean

Etxarri Aranatz pilotarien herria da. Egun bi dira profesionalak, Joanes Bakaikoa (Asegarce) eta Adur Lasa (Aspe). Ferietan herriko pilotariak jaialdi berean lanean ikustea zen Etxarri Aranazko Udalaren desioa. Horrela, Aspe eta Asegarcek jaialdi polita antolatu dute iganderako Euskalerrriari pilotalekuan, 17:30ean, Udalaren laguntzarekin. (Sarrera 10 euro).

Lehenik eta behin, emakumezkoen esku pilota partidaz gozatzeko aukera izango da. Irati Igoa etxarriarrak Olatz Ruiz de Larramendirekin osatuko du bikoia, Yanira Aristorena etxarriarraren eta Olatzen izeba Maite Ruiz de Larramendiren kontra aritzeko. Gazteen eta helduagoen arteko lehia izango da, ikusmin handia sortu duena.

Bakaikoa Lau t'erdian

Ondoren, Lau t'erdiko Promozio Txapelketako final laurdeneko partida jokatu du Joanes Bakaikoak. Aranguren izango du aurkari aurrelari etxarriarrak. Ea txapelketan aurrera egiten duen gureak. Binakako partidarekin despedituko da arratsalde pilotazalea. Adur Lasak Arretxe II. arekin osatuko du bikoia, Ugaldere eta Erosarberren kontra aritzeko.

Etxarriko Bargako igoerarako dena prest

MENDI LASTERKETAK Etxarriko feriekin batera igandean jokatu da XLIII. Mendira Joan Etorria, 11:00etatik aurrera. Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako baliagarria da eta probako egunean bertan eman daiteke izena

Etxarriko ferietako igande goizeko egitarauan Udaberri elkar-teak Etxarriko Udalaren laguntzarekin antolatutako Mendira Joan Etorria toki berezia du. Herritik atera, Bargara igo, Hartzabal zapatu eta atzera ere herrira jaisteko lasterketa oso kuttuna dute inguruko korrikalariak eta haiek animatzera hurbiltzen diren etxarriarrek.

Garai bateko apustu baten harira 1976. urtean hasi zen Etxarri Aranazko lasterketa hau. Aurten 43. edizioa jokatu da, eta Euskal Herriko lasterketarik beterranoetariko bat da. Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako baliagarria



Bargara igo eta jaistea da erronka.

den azken proba izango da Etxarriko.

Korrikalariak goizeko 11:00etan abiatuko dira Etxarri Aranazko plazatik. Erronka Bargara igo da, pago eta haritz artean, Hartzabaleraino, maiatza jartzen den tokira hain zuzen (1.065 m). Jaitsiera bide berdinetik egiten da. Probak guztira 10 kilometro ditu, eta 572 metroko desnibel positiboa.

Izena emateko

Aurretiko izena ematea gaur, ostiralean despedituko da www.mendizmendi.com web gunean (10 euro), baina lasterketaren egunean bertan izena emateko

aukera izango da Etxarriko plazan (15 euro). Parte-hartzeko gutxienezko adina 16 urtekoa da. Dortsalak 9:00etatik 10:00etara banatuko dira udaletxeko estalopean.

Aurreko urtean 80 korrikalari lehiatu ziren, horietatik 38 sakandar, eta Beñat Katarain lakuntzarrak (46:48) eta Virginia Perez bizkaitarrak (52:56) irabazi zuten. Aurten, momentuz 50 korrikalari inguru daude izena emanda, egunean izena emango dutenak kontuan hartu gabe.

Errekorra gaindituz gero 300 euro

Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorriko errekorra hobetuz gero, 300 euroko saria lortuko du txapelkunak, gizonak zein emakumeak, Olalde gaztak etxearren eskutik. Egun, gizezkoen errekorra Juan Mari Garinek du (42:50, 2001ean).

Lasterketaren ondoren parte-hartzaile guztiek oroigarri bat jasoko dute opari, eta guztientzako auzate ederra egonen da Udaberri Elkartean. Sari ematea plazan egingen da.

Lan bila zabilta?

Eman izena **Sakanako Mankomunitateko kirol monitore, entrenatzaile eta aurkezle euskaldunen lan-poltsan!**

Baldintzak:

18 beteak izatea, euskalduna izatea eta oinarriko kirol titulazioa izatea.

Izen-ematea:

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan, 948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.eus postan.

Oharra:

Bereziki spinning, zumba, pilates eta yoga monitoreak behar dira.

Erabiltzaileak:

Begirale euskaldunen eta aurkezleen zerrendak Sakanako udal eta mankomunitateek zein enfitate pribatuek erabili ditzakete. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzua bitartekaria izanen da. Ez da lan-haremanik sortuko Sakanako Mankomunitatearen eta zerrendako kideen artean.

Mank
s a k a n a

Kirol Zerbitzua eta Euskara Zerbitzua

Iban Resano Nafarroako 2. mailako txapeldun

AIZKORA Dorraoko aizkolariak Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketa irabazi zuen igandean Igantzin eta etzi Euskal Herriko II. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu du Durangon

Igantzik Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako finala hartu zuen igandean. Bost aizkolari lehiatu ziren, eta bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat erdibitu behar izan zituzten.

Iban Resano dorrobarrak eta Asier Pellejerok lehia estua izan zuten, beraien artean erabaki zen txapela. Azkenean dorrobarrak gailendu zen (19:00), Aresoko Asier Pellejerori 16 segundo atera eta gero (19:16). Hortaz, Iban Resano dugu bigarren mailako txapelduna, eta bera eta Pellejero mailaz igo dira eta hurrengo denboraldian Nafarroako I. Mailan arituko dira.



Iban Resano txapelarekin. Goizeder Beltza eta Floren Nazabal ditu ondoan. TTPI-TTAPA

Goizeder Beltza etxarriarra hirugarrena sailkatu zen (20:43) eta ez zuen mailaz igotzea lortu, Nafarroako II. Mailan jarraituko du. Jesus Etxeberria (Beintza Labaien) laugarrena sailkatu zen (21:17) eta Mikel Indakotxea (Zubieta) bosgarrena (23:45).

Igandean Euskal Herrikoari ekingo dio

Iban Resanok ez du atsedetik hartuko. Izan ere, igandean, urriaren 7an, Euskal Herriko II. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu du Durangoko Landa Kirol gunean, 12:00etan. Iban Resanorekin batera Arkaitz Jauregi, Eloy Corchero, Jesus Mari Mujika, Aratz Mugertza, Luis Mari Txapartegi, Juan Jose Lopez, Oihan Larretxea, Julen Kañameres, Jose Antonio Etxeberria, Oier Kañameres eta Asier Pellejero arituko dira. Aizkolari bakoitzak hiru kanaerdiko, 60 ontzako bat eta oinbiko bat erdibitu beharko ditu.

Lehen sei postuetan sailkatzen diren aizkolariak lortuko dute azaroaren 4an Iurretan jokatu den final handirako txartela.

Santanderren BTT ibilaldia antolatu du Mankomunitateak

BTT Azaroaren 4an izango da eta 14 urtetik gorakoek eman ahal dute izena 35 km-ko ibilbide ederrean

Sakanako Mankomunitateak, Barranka Txirrindulari Taldearen eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz BTT edo mendi ibilbide zoragarria antolatu du azaroaren 4an Santanderren, Sanandereko badian.

35 km-ko ibilbidea Santanderreko badian

Ibilbidea oso polita izango dela ziurtatu digu Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak. "Las Llanasa ibarreko parte, Santanderreko badia, Magdalena jauregia, Sardinero hondartza, itsaslabarretik Cabo Mayorrrera, Las Marucas kostatik jarraitu eta atzera ere Las Llanasera iritsiko gara. Ibilbide zirkularra da" adierazi du. 35 km-ko buelta da, zailtasunaren aldetik erraza-ertaina, 250 metroko desnibela duena. Bertan bazkalduko dute partaideek.



Aurreko txango bat. BARRANKA T.T.

14 urtetik gorakoek eman ahal dute izena, azaroaren 1a baino lehen, Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakanamank.eus). Prezioa: 10 euro. Autobusa goizeko 6:30ean aterako da Altsasuko autobus geltokitik.

Punteria falta, Osasuna Magnaren gabezia

ARETO FUTBOLA Talde berdeak ez du oraindik garaipenik lortu; bihar Cartagenaren kontra jokatu du

Hiru jardunaldi jokatu dira baina Osasuna Magnak oraindik ez du garaipenik ospatu. Igandean El Pozo Murcia talde ahaltsua hartu zuen Anaitasun eta punteria faltagatik ezin izan zuen garaipena lortu.

Partida hasi baino lehen omenaldia jaso zuen aurreko urtean erretiroa hartu zuen Javi Eserverri Xotako kapitain handiak. Partida hasi eta berehala hasi zen Osasuna Magna gol aukerak sortzen, ongi jokatu zuten Imanol Arregiren mutilek, baina talde berdeak ez zuen baloia atean sartzen jakin. Aldiz, El Pozo aukerak gauzatzen hasi zen eta, azkenean, 0 eta 3 irabazi zuen Murtziako taldeak.

"Partida ona izan da, baina hori markagailuan islatzen ez baduzu, ez da ezer" adierazi zuen Imanol Arregik partida bukaeran. "Gola sartzeko auke-

ra nahikoak izan ditugu, baina ez dugu asmatzen. Bukaeran zehazten ez badugu, ez dugu ezer egiterik. Golik gabe ezin da partidarik irabazi" nabarmendu zuen teknikariak.

Bihar Cartagena aurkari

Liga hasiera nahasia izan dute berdeek, eta talde potoloenen kontra aritzeak ez die lagundu. Barcelona Lassa da liderra (9 puntu, Palma Futsal eta El Pozo Murciarekin puntura berdinduta. Osasuna Magna beheko postuetan dago: 14.a da, puntu batekin. Larunbatean Cartagenaren kontra ariko da talde berdea, 13:15ean, Murtzian jokatu den partidaren (Teledeporte, zuzenean). Ea egoerari buelta eman eta hiru puntuak ekartzeko gai diren Imanol Arregiren mutilak, urduritasuna alde batera uzteko, bederen.

PREFERENTEIA

3. JARDUNALDIKO EMAITZA
Arrotxapea - Etxarri Aranatz **2-2**

SAILKAPENA
PREFERENTEKO 1. MULTZOA
1 Ilunberri **9**
6 Etxarri Aranatz **5**

PARTIDUA
LARUNBATEAN
16:30 Etxarri - Beriain (*San Donaton*)

Etxarrik puntu bat ekarri zuen

Partida oso lehiatua, Etxarri 2 eta 1 aurreratu zen Arrotxapeak ate propioan eta Darlingek sartutako golei esker. Tamalez, Arrotxapekoek berdintzea lortu zuten eta etxarrirek soilik puntu bat ekarri zuten Iruñetik.

ERREGIONALA

4. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Lagun Artea - Ardoi B **2-1**
Altsasu - Salesianos **2-0**

SAILKAPENA
ERREGIONALEKO 1. MULTZOA
1 Lagun Artea **12**
4 Altsasu **9**

PARTIDUAK
IGANDEAN
17:00 Altsasu - Lagun Artea (*Dantzaleku*)

Igandean Altsasu-Lagun Artea derbia Altsasun

Bolada onean segitzen dute erregionaleko gure bi taldeek. Lagun Artea 2 eta 1 irabazi zion Ardoi taldeari Zubiriak Zelai Berrin sartutako bi golei esker eta Altsasuk garaipen polita ospatu zuen etxean, partida lehiatua Guisadok eta Lobok sartutako gol ederrei esker.

Igandean derbi sakandarra izango dugu. Altsasuk Lagun Artea liderra hartuko du igandean Dantzalekuan.

EMAKUM. ERREGIONALA

3. JARDUNALDIKO EMAITZA
Amigo - Altsasu **6-2**

SAILKAPENA
EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA
1 Osasuna **12**
8 Altsasu **6**

PARTIDUAK
LARUNBATEAN
16:00 Izarra - Altsasu (*Merkatondoan*)

Izarraren kontra egoerari buelta ematera

Emakumezkoen erregional mailan Amigo taldearen kontra aritu ziren Altsasuko neskek. 6 eta 2 galduta itzuli ziren bertatik, ea bihar Izarratik puntutxoren bat ekartzen duten.



Guztira 45 sakandarrek lortu zuten Olatzagutia-Urbsa proba despeditzea.

136 korrikalari Olatzagutian

MENDI LASTERKETAK 12. Olatzagutia-Urbsa lasterketa eraberritua 136 korrikalarik osatu zuten, horietatik 45 sakandarrek. Xabi Lete eta Alizia Olazabal izan ziren txapeldunak eta Joxeja Maiza eta Izaskun Beunza lehen sakandarrak

Olatziko Sutegi elkartekoak pozik daude aurreko larunbatean jokaturako Olatzagutia-Urbsa mendi lasterketarekin. Aurten proba ezagunaren 12. edizioa zen eta aldaketa nabarmenekin etorri zen. Lehendabizikoa probaren distantzia. Aurreko urteko 26,33 km-tik lasterketa 15,23 km-ra laburtzea erabaki zuen antolakuntzak (900 m desnibel +). “Konturatzen ginen aurreko edizioetan parte-hartzeak behera egin zuela. Hasieran 300 korrikalari ziren, eta 140 izatera pasa ginen. Lasterketa asko daude orain, gaur, adibidez 7-8 proba. Gure proba herrikoia goa giteko distantzia laburtzea pentsatu genuen, gure bailarako korrikalariak gehiago animatzeko, eta zorionez horrela izan da” aipatu zuten antolatzaileek. “80-100 pertsona espero genituen eta 141 korrikalarik hartu dute

irteera eta horietatik 136k lortu zuten proba despeditzea” gaineratu zuten.

Haurrendako lasterketak

Izan ere, San Migel festetan murgildua zegoen Olatzin giroa sortzea eta ongi pasatzea zen helburua. Lasterketak herriari bizi gehiago emateko proba San Migel plazatik abiatu zen, eta korrikalariak irteera hartu bezain pronto, txikiendako lasterketak antolatu zituzten San Migel plazan. 4 urte bitarteko neska-mutikoen moto txikiak hartu zuten parte, eta ondoren

DISTANTZIA TXIKIAGOAREKIN KORRIKALARI GEHIAGO ANIMATU DIRA ATERATZERA

4-7 urte, 7-10 urte eta 10-13 urte artekoen lasterketak heldu ziren. Ez zen sailkapenik egin, helburua ongi pasatzea zelako, eta guztiek pintxo goxoa jaso zuten sari.

Gozatu ederra

Mendi lasterketari dagokionez, aurreko urteko proba luzeko hasierako tartea izan zen aurten bete beharrekoa. Zuzenean Urbasako ipar gailurreriako punturik altuenera jo zuten, Tontorraundira (1.157 m). Bira gorabeheratsua egingo zuten ondoren, ekialdera Altsasuko portugaitetik (1.150 m), Morterutxora jaitsi (890 m) eta segidan Zelai handitik (1.113 m) Bargainera iristeko (1.153 m), eta, ondoren, atzera ere Morterutxora heltzeko. Hortik Olatziko helmugara bidea hartu zuten plazara iristeko. Proba hasieratik Xabi

Letek, Gorka Herce eta Sergio Serranok aurrea hartu zuten eta elkarrekin aritu ziren, baina gailurrerian distantzia hartu zuen Xabi Lete oñatiarrak eta bakarrik iritsi zen helmugara (1.23:11). 3 minutu pasa atera zizkion Gorka Herce oiartzuarri (1:26:32) eta lau minutu luze Sergio Serrano idiazabaldarrari (1:27:35). “Izugarri gozatu dut. Lehen aldiz aritu naiz proba honetan eta ibilbidea asko gustatu zait. Lehorra zegoen eta korrika egin ahal izan da” aipatu zuen Letek. Emakumezkoetan Alizia Olazabal beterrano irundarra gailendu zen beste behin (1:46:04). “Ez dakit zenbat txapela lortu ditudan hemen; kontua galdu dut” onartu zuen korrikalari beterranoak. Bigarrena Izaskun Beunza olatziarra izan zen (1:53:34) eta hirugarrena Beatriz Martinez iruindarra (1:57:55).

45 sakandar

Olatziko orain proba herrikoia dela ezin da ukatu, proba bukatu zuten 136 korrikalarien artean 45 sakandar zeudelako. Helmugan laugarrena sartu zen Joxeja Maiza etxarriarra (1:28:26) eta emakumezkoetan bigarrena izan zen Izaskun Beunza (1:53:34) izan ziren lehen sakandarrak. Ander Unzurrunzaga etxarriarrak sasoi batean jarraitzen du: helmugan zortzigarrena izan zen eta lehen beterranoa izan zen, Alizia Olazabalekin batera. Bukaeran korrikalari guztiek opari poltsa jaso zuten eta auzate ederra zuten zain, indarrak berreskuratzeko. Txapeldunek txapelak jaso zituzten eta bertako produktuekin osatutako loteak, gainontzeko saridunek bezala.

Lopez de Goikoetxea gogoan

Proba hasi baino lehen minutu bateko ixilunea gorde zen bezperan motor istripuz hildako Juantxo Lopez de Goikoetxearen alde. Senitartekoei eta lagunei euren babesa azaldu zieten. “Juantxo beti izanen dugu gogoan” aitortu zuten Sutegikoek.

45 SAKANDARREN ARTEAN JOXEJA MAIZA ETA IZASKUN BEUNZA IZAN ZIREN AZKARRENAK

Sakandarrak Olatzagutia-Urbsan

Gizonak

1.Xabi Lete (Oñati)	1:23:11
4.Joxeja Maiza (Etx)	1:28:26
8.A. Unzurrunzaga (Etx)	1:30:50
10.Gorka Acebes (Olaz)	1:32:11
15.J. Bereziartu (Alts)	1:36:15
18.Jabi Gasanz (Alts)	1:37:05
23.Patxi Cano (Alts)	1:38:10
24.M. Satrustegi (Arrua)	1:38:55
25.Fran Araña (Arb)	1:40:10
29.Juan Larrea (Alts)	1:42:10
30.Iban Sobredo (Alts)	1:42:21
35.Jabi Beraza (Iruir)	1:43:55
36.F. Ganuza (Olaz)	1:44:33
41.Iñaki Rubio (Lak)	1:46:18
43.Alberto Anton (Alts)	1:48:05
44.Asier Pellejero (Lak)	1:48:08
45.Iban Verdugo (Etx)	1:48:14
51.Gaizka D. De Garaio (Bak)	1:49:33

55.Asier Leitzza (Arb)	1:52:35
60.Santi Agirre (Iturm)	1:54:59
61.Xabier Etxeberria (Etx)	1:55:08

64.Joseba Galarza (Iturm)	1:55:57
---------------------------	---------

69.Jon Garasa (Olaz)	1:56:59
73.Iñaki Arkauz (Lak)	1:57:24
81.Jorge Iradi (Alts)	1:59:52
86.F.J. Moreno (Alts)	2:01:32
87.Txomin Razkin (Lak)	2:01:33
89.Tomas Guirado (Alts)	2:01:55
90.Arkaiz Munarriz (Etx)	2:01:55

91.Asier Estarriaga (Etx)	2:01:55
94.Alberto Arrizabalaga (Olaz)	2:03:01

95.J.A. Salgado (Alts)	2:03:01
96.Julen Flores (Lak)	2:03:10
101.R. Zornoza (Olaz)	2:05:24
115.Sergio Goñi (Olaz)	2:12:28
118.Aitor Salinas (Etx)	2:15:50

Emakumeak

38.Alizia Olazabal (Irun)	1:46:04
57.Izaskun Beunza (Olaz)	1:53:34

112.Maria Goikoetxea (Etx)	2:09:26
----------------------------	---------

117.Joana Senar (Etx)	2:15:50
125.Silvia Perez (Alts)	2:20:50
127.Ainhoa Markinez (Olaz)	2:23:10

130.Izaskun Agirre (Olaz)	2:25:40
---------------------------	---------

132.Uxue Lazkano (Lak)	2:35:03
133.Txaro Ondarra (Bak)	2:46:39

136.Maite Izagirre (Olaz)	2:59:43
---------------------------	---------

Katxarro Egunean aritzera animatu dute

AUTOMOBILISMOA Bakaikun izanen da urriaren 13an eta izena ematea zabalik dago

Aurreko edizioetako arrakastak bulkatuta, aurten ere Katxarro Eguna antolatuko du Bakaikuko Bakarrekoetxea elkarteak. Urriaren 13an ospatuko da, goizeko 10:00etatik aurrera. Horregatik, etxean ibilgailu zaharrak, klasikoak eta mota guztietako katxarroak dituztenei deia egin diete, egunean parte hartzeko. Norbait animatzen bada ondoko telefonoetara hots egin beharko du izena emateko: 691 557 448 edo 680 825 557.

Bazkarirako aurretik eman behar da izena

Ohikoa denez, hasieran autoak, motorrak, bizikletak, traktoreak, kamioiak... Bakaikuko plazan bilduko dira eta ikusleek ibilgailuak gertutik ikusteko aukera izango dute. Ondoren, antolakuntzak hamaiketako ederra prestatuko die parte-hartzaile guztiei.

Eguerdian, ibilgailu klasikoetan igo eta Sakanan buelta egingo dute topaketako parte-hartzaileek. Eta festa borobiltzeko bazkaria izanen da elkartean (helduek 15 euro, haurrek 8 euro). Bazkarira joateko izena eman beharra dago aurrerago aipatutako zenbakietan.

KLASIKOEN TOPAKETA
IV. KATXARRO EGUNA
URRIAK 13 - BAKAIKU

10:00 - 13:00 KLASIKOEN TOPAKETA
11:30 - PARTE HARTZAILEENTZAT LUNTXA
12:00 - SAKANATIK IBILBIDEA
14:30 - BAZKARIA ELKARTEAN

PREZIOA: 15 EURO / HAURRAK: 8 EURO
BARRANKA PARTE HARTZAILE ETA BOLUNTARIO PARTE HARTZAILEAK

Izena eman! KATXARROEGUNA@GMAIL.COM
691 557 448 - 680 825 557



Sakanako Bizikleta Egunak irudi ederrak utzi zituen. Goian, Urdiaindik Altsasura bidean. Alboan, omendutako argazkia, txirrindulariak Uharte Arakiletik pasatzen eta txirrindulariak Lakuntzatik pasatzen.

Bizikleta eguna: 25 urte eta aurrera!

TXIRRINDULARITZA Sakanako Bizikleta Egunik arrakastatsuen izan zen aurtengoa. Irurtzunen hasi zen eta 25 urte hauetan eguna sustatu duten talde eta pertsonak omendu zituen Mank-ek. Ibilbide ez lehiakorra Altsasun despiditu zen

Sakanako Mankomunitateak antolatutako Sakanako Bizikleta Eguna ospatu zen igandean. Zita garrantzitsua zen aurtengoa, egunero ez baitira 25 urte betetzen. 330 pertsonak aurretik eman zuten izena, baina askoz ere gehiago izan ziren herrietan ibilbide ez lehiakorren batu zirenak. Guztira 500 lagun baino gehiagok hartu zuten parte. Aurten Irurtzunen hasi eta Altsasun despiditu zen Sakanako bizikleta festa, 41 km jendetsu eta eguzkitsu osatu eta gero.

Omenaldia

Sakanako Bizikleta Egunak 25 urte betetzen zituela, ibilbideari ekin baino lehenago omenaldia egin zuen Mankomunitateak Irurtzunen. Bertan zegoen Mikel Goldarazena, Sakanako Bizikleta Eguneko sortzaileetako bat, Pablo Lopez, Javier Aldaz eta Mikel Nazabalekin batera. Barranka, Aralar eta Burunda Txirrindulari taldeek ere aipamen berezia jaso zuten, eguna

antolatzen laguntzeagatik. Baita Aitor Mendozak ere, ibilbidearen atzean doalako proba isten eta Joaquin Beltran de Heredia mekanikariak. Azkenik, hasieratik bertan parte hartu duten Mari Jose Lopez iturmendiarri, David Franco altsasuarri eta Jexux Senar unanuarri ere aitortza egin zitzaion. Senarrek ere Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastetxeetan Sakanako Bizikleta Eguna sustatzeko lan handia egin duela aipatu zuen Amaia Gerrikagoitia teknikariak, eta, ildo berean, Bizikleta Eguna sustatzeko Sakanako ikastetxe guztien inplikazioa eskertu zuen. Guztiek oroigarria jaso zuten.

25 URTE HAUETAN BIZIKLETA EGUNA SUSTATU DUTENEK ERREKONAZIMENDUA JASO ZUTEN

Ondoren ekin zitzaion bideari. Jendetzak parte hartuko zuela espero zen eta hala izan zen. Gerrikagoitiak azaldu zuenez, 330 pertsonak eman zuten izena aurretik, baina ibilbidean barna jende asko batu zen bidera. Familia osoak, lagun koadrilak, ikastetxe ikasle eta lagunak... denetarik ikus zitekeen bizikleta ibilaldi koloretsuan. "Bizikleta sustatzea da helburua, eta baita Sakanako herri, txoko, monumentu eta bide zoragarriak ezagutzea eta goiz ederra pasatzea. Jende asko eguna iristeko zain egoten da eta behin animatzen denak errepikatu egiten du. Familia askok parte hartu dute eta oso pozgarria da, txalotzekoa, txirrindularitza eta ohitura osasuntsuak sustatzen dituztelako" gaineratu zuen Mank-eko kirol teknikariak. Halaber, antolaketan lan handia egiten duten Barranka, Aralar eta Burunda klubendako eta boluntario guztientako hitz eder eta eskertuak izan zituen Gerrikagoitiak.

Geldialdia Zamartzen

Aurten Zamartzen egin zuten geldialdia. Hamaiketako hartzearekin batera, Zamartzeri buruzko azalpenak eman zizkien Jose Andres Izak. Bertatik Bordenale eta Astorga batzen zituen erromatar galtzada pasatzen zen garai batean, eta Erdi Aroan, Donejakue bide zaharra. Hori guztia izan zuen hizpide Izak. Zamartzeko museon jasoak daude garai haietako arrasto eta aztarnak.

Ondoren, bizikleta hartu eta Lakuntzatik behera, Lizarraga-bengoara iritsi ziren txirrindulariak, handik gora Arbizura heldu eta gutxinaka Altsasuraino heltzeko. Helburua lortuta, atzera ere autobusa hartu zuten parte-hartzaileek, atzera ere euren herrietara bueltatzeko.

Hurrengo urtean segida izanen du Sakanako Bizikleta Egunak, eta Ergoienatik pasako dela aitortu zuen Gerrikagoitiak. Aurtengo edizioak 6.000 euroko aurrekontua izan du, kamioi eta autobus zerbitzua eta aseguruia barne. Ekimena doakoa da, baina izena ematea derrigorrezkoa dela nabarmendu zuen Gerrikagoitiak, bereziki aseguruarako.

ZAMARTZEN EGIN ZUTEN GELDIALDIA ETA JOSE ANDRES IZAREN AZALPENAK ENTZUN ZITUZTEN



...ntzako plazara heltzen. GUAIXE ETA UTZITAKOAK



Aitor Alberdi Atarrabiako podiumera igo zen

TXIRRINDULARITZA Aralar klubeko arbizuarra juniorren eta kadeteen 22. Indurain Anaiak Sariko lehen kadetea izan zen, helmugan bederatzigarrena. El Caserio taldeko Jon Gil junior lakuntzarra laugarrena sailkatu zen.

Igandean 22. Indurain Anaiak Saria lasterketa jokatu zen Atarrabian, junior eta kadete mailerako baliagarria (84 km). Junior mailako hiru txirrindulari iritsi ziren elkarrekin helmugara, eta esprintean Lizarte taldeko Diego Uriarte gailendu zitzaizen (1:52:22) Lizarteko Mikel Retegiri eta Arabarrak taldeko Jokin Murgialdairi. El Caserio-Valsay taldeko Jon Gil lakuntzarra 4.a sartu zen eta Aralar klubeko Intersport Irabia taldeko Beñat Etxezarreta 5.a, biak 10 segundora.

Atarrabiako lasterketako helmugan sartu zen lehen kadetea Aralar klubeko Intersport Irabia taldeko Aitor Alberdi arbizuarra izan zen, helmugan 9.a (1:52:34). Gainontzeko sakandarrak kontuan hartuta, Javier Mitxaus (I.I.) 25.a sartu zen, Iker Cerviño (I.I.) 33.a, Imanol Galarza (I.I.) 36.a, Migel Gil (Q.A.) 45.a, Mikel Lizasoain (I.I.) 59.a eta Iker Mintegi (Q.A.) 63.a.



Aitor Alberdi, podiumean. UTZITAKOAK

Igandean, urriaren 7an, kadeteen eta juniorren denboraldiko azken lasterketa jokatu da Atarrabian, XLIII. Atarrabiako Udala Saria hain zuzen, goizeko 11:00etan. Gure txirrindulariak bertan ariko dira.

Etxeberriak ez zuen zorterik izan Mundialetan

Innsbruckeko Munduko Txirrindularitza Txapelketetako juniorren mailako linea lasterketan aritu zen Aralar klubeko Josu Etxeberria txirrindularia, Espainiako selekzioko gainontzeko kideekin: Carlos Rodriguez, Ivan Cobo, Jon Barrenetxea eta Pelayo Sanchez. Baina zortea ez zuen alde izan Etxeberriak. Lehen zatian eroriko handia egon zen tropelean eta lurrera joan zen Iturmendikoa. Baita faborito nagusia, Remco Evenepoel. Belgarrak sekulako erakustaldia eman zuen, 2 minutura atzean egotetik aurrera egin, ihes egindakoak harrapatu eta lasterketa irabazi baitzuen, helmugara bakarrik iritsita. Ikusgarria.

Aldiz, lasterketako bigarren eroriko handian ere lurrera joan zen Josu Etxeberria. Ezker izterrean kolpe handia hartu zuen eta proba utzi behar izan zuen iturmendiarrak.



IRATXO

Santos eta Julen txapeldunak

BOTXA Igandean Binakako Iratxo Botxa Txapelketako finalak jokatu ziren. 3. eta 4. postuen finalean, Mikel eta Asensio finagoak ibili ziren eta 15 eta 9 irabazi zieten Mikel Arregiri eta Edurneri. Eta final handian Josune eta Alizari 8 eta 15 irabazi zieten Santosek eta Julenek.

Larunbatean Elkarteen Arto Txapelketa jokatu da Irurtzunen. Amaya, Berriozar, Antsoain, Txantrea eta Irurtzun klubetako 9 bikote lehiatuko dira guztira. Eta, bestalde, aurrera jarraitzen du Banakako Iratxo Botxa Txapelketak. 14 lagun daude parte hartzen.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 5

ALTSASU Birziklatze tailerra.
Gazteria zerbitzuak antolatuta.
18:00etan, Intxostiapuntan.

LAKUNTZA Sakanako
aberastasun ornitologikoa
hitzaldia. Izena ematea: info@
miruak.com edo 608560369.
18:30etik 19:45era, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia
toki egokian. Nahi izanez gero
posible da kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7.an.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ
Euskal presoak Euskal Herrira
kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske
kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Altsasuko
Gaztetxearen urteurrena:
Gaztewood Remember Fest.
22:00etan, gaztetxean.

ALTSASU Las distancias filma.
22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 6

ALTSASU Altsasu-Irutzun-
Musiz-Urriza-Irurzun-Altsasu
90 km-ko ibilbidea egingen dute
Barrankako errepide atalekoek.
09:00ean, San Juan plazatik.

LAKUNTZA Basoetako eta
zelaletako hegaztiak irteera
gidatuak. Izena ematea: info@
mirua.com edo 608560369.
09:30etik 13:00etara.

ALTSASU Zurrumurrak tailerra.
Gazteria zerbitzuak antolatuta.
10:00etatik 13:00etara,
Intxostiapuntan.

ALTSASU Hasiera jaia: kars,
jumping, afaria eta musika.
17:00etatik 01:00etara, Intxostiapuntan.

ALTSASU Oliver Twist musikala.
19:00etan, kultur gunean.

LAKUNTZA Barañaingo
Abesbatzaren kontzertua.
19:30etan, plazan.

ARBIZU Euskaraldiaren
aurkezpena.
20:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Etxean
nahi ditugu giza katea. Orain
Presoak-ek antolatuta.
20:00etan, plazan.

IGANDEA 7

ALTSASU Baizako Gainara 47
km-ko ibilbidea egingen dute
Barrankako mendi atalekoek.
09:00ean, Urbasako portutik.

IRURTZUN Bigarren eskuko azoka.
11:00etatik 14:00etara, plazan.

ALTSASU Birziklatze tailerra.
Gazteria zerbitzuak antolatuta.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Las distancias
filmaren emanaldia.
19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal
Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 8

ALTSASU Pentsio duinen alde.
Nafarroako Pentsionistak
Martxan eta Otsailaren



ALTSASU Yolanda Arnedoren Arte Dekoratioben tailerraren ikasleen
lanen erakusketa. Urriaren 24ra arte. Astelehenetatik ostiraletara
18:30etik 21:00etara, larunbatetan 18:30etik aurrera eta igandetan
16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.

22ko Plataformak deitutako
elkarretaratzea.
19:30ean, udaletxe aurrean.

ALTSASU Osasunez zahartzea
Adinduen eskolako tailerra.
Izena emateko: 848423450.
17:00etatik, 19:00etara,
Erretiradunen egoitzan.

ASTEARTEA 9

ALTSASU Altsasuko
inbaurrondoaren zaharberitzearen
inguruko hitzaldia.
12:00etan, Foru plazan.

ASTEAZKENA 10

ZIORDIA Udazkena KM-0
sukaldaritza tailerrak: bazkari
eta afari menuak Sakanako
txekorrarekin. Izena emateko:

nviana@sakanagaratzen.com
edo 627688691.
19:00etan, Errekak artean
elkartean.

ALTSASU Euskaraldiko
batzordearen bilera.
20:00etan, Gure Etxea eraikinean.

OSTEGUNA 11

ALTSASU Osasunez zahartzea
Adinduen eskolako tailerra.
Izena emateko: 848423450.
17:00etatik, 19:00etara,
Erretiradunen egoitzan.

ALTSASU Cuando ellas quieren
filmaren emanaldia.
19:00etan, lortia kultur gunean.

Olazti Txolin mariatxiaren
emanaldia.
23:00etan, Barandi tabernan.

ZORION AGURRAK



Oihan Gastaminza
Betelu
Gure etxeko
futbolariak 7 urte bete
zituen ostegunean.
Zorionak politte!!! Segi
horren alai.



Lorena Senar
Zorionak familia
guztiazen partez!!



DEKOVEN
NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen ibitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com · www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU · Tel./Fax: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

LEHIAKETAK

GAZTEWOOD. Altsasuko gaztetxearen III. Film laburren txapelketa. Gehienez 15 minutu. Lanak MP4 formatuan, DVDan edo pendrivean aurkeztu behar dira 2019ko martxoaren 19a baino lehen. Informazio gehiagorako gazteewood@gmail.com edo sare sozialetan gazteewood profilean.

OHARRAK

Olaztikoz irakurle taldea: Hurrengo hizordua lastailaren 19an, ostiralean, 21:00etan udal liburutegian. John Herseyren Hiroshima liburua izanen da hizketa gaia.

Telebista saio baterako parte-hartzaile bila: Iruñerrian emititzen den Xaloea Telebistak Euskal City saioa grabatzen hasi zen Berriozarko egoitzan, maiatzean. Euskal jendea-ri zuzendutako saioa da eta edozein adinetako jendearen bila ari dira, hizkuntza-zen ikasketak prozesuarekin zerikusia duten esperientziak elkarbanatuz (nola hasi ziren ikasten, zergatik, etab...). "Mintzapraktika bat da, baina, grabatuta. Ongi pasatzeko esperientzia bat, euskararen alde egiten den bitartean". Xaloea telebistatik diotenez, "zuen elkarte, herria, enpresa... promozionatzeko edota ikustaratzeko, auke-

ra bikaina da". Harremanetarako: xaloaprodukzioa@gmail.com edo 948 592 476 telefonoa (izaskun Artigas)

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

GoiEner. Iruñeko helbide berria: Kale Berría 111, 31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hileroko 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00.

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslarien aldeko abenduaren 30eko ekime-
nean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2 1 0 0 2 1 7 3 8 7 0200346965

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

OPATUTAKOAK/
GALDUTAKOAK

Belarri audifonoa Altsasun: Josefina Arregi klinikaren aurretik pasatzen den Zelai kalean belarri audifono bat aurkitu zuten astelehenean. Klinikari gorde dute, bertatik pasatu.

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoko Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diruzorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkilaburak.eus

ESKELA



Angeles
Aungi segi bideie



JAIOTZAK

- **Alba Hualde Gonzalez,** irailaren 26an Altsasun
- **Chaymaa Azani,** irailaren 28an Altsasun

EZKONTZAK

- **Beatriz Martincorena Legarra eta Manuel Rey Alfonsin,** irailaren 28an Errotz-Arakilen

HERIOTZAK

- **Juan Carlos Lopez de Goikoetxea Zabala** olaztiarra, irailaren 28an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELA



Juantxo Lopez de Goikoetxea Zabala



Iñigo Aritza Ikastolako ikasle ohia

Ikastolako hariztiko hostoak orbel...
Besarkada handia familiarendako

Iñigo Aritza ikastolako guraso, irakasle, ikasle eta langileak

OROIGARRIA



Eduardo Goikoetxea Kintana

2017ko Urriaren 5ean zendu zen, 60 urte zituela

Bihar arte, aita...
Asko maite zaitugu

Etxekoak

Olazti

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen


gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:


- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarki Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 5




Larunbata, 6



Igandea, 7



Astelehena, 8



BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

tanatorioak
IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

Altsasuko eskultura plazatik eraman dute

Zaharberitze prozesuaren hurrengo urratsa leku itxi batean egin behar da: finkatze produktuan busti behar da eskultura, ongi gogortzeko. Hilabete egonen da horrela. Eskultura plazara urte bukaera baino lehen itzuliko dela uste du Elur Ulibarrenak

ALTSASU

Abuztuaren 16an hasi zituzten "Altsasu den guztia" irudikatzen duen intxaurrenduaren eskultura zaharberitzeko lanak. Elur Ulibarrena zaharberritzailea eta Joxe Ulibarrena eskulturaren egilearen alaba da proiektuaren burua. Ulibarrenarekin batera boluntarioak aritu dira udan eskultura berritzen. Lehenengo urratsa egurra garbitzea zen eta prozesuarekin jarraitzeko eskultura leku itxi batera eraman behar zuten. Hortaz, aurreko ostegunean eskultura plazatik eraman zuten.

Eskultura eramatea ez zen erraza izan. "Zuzenean hartzen badugu apurtzeko arriskua dago egurra oso kaltetuta dagoelako", azaldu zuen Elur Ulibarrenak. Beraz, arriskuak ekiditeko metalezko "kaiola edo estruktura" bat eraiki zuten Altsasuko Lan Zerbitzuak eskulturaren oinarria eta inguruan eta, horrela, eskultura zuzenean garabiarekin



Eskulturaren porlanezko oinarria.

hartu beharrean estruktura hartu zuten. Irailaren 27an eraman zuten eskultura handia eta egun porlanezko oinarria eta eskultura txikia gelditzen dira.

Zaharberitzearen hurrengo urratsa tolueno produktu kimi-

koan oinarritutako tratamendua da. Hilabete inguru egon behar da egurra finkatzeko produktuaz bustita, eta horretarako tanga batean sartu dute. Eskultura gogortzea du helburu produktu honek.

Eskultura produktu honekin ongi busti eta gogortu ondoren, eskulturaren falta diren zatiak berregingo dituzte boluntarioek eta Ulibarrenak. "Argazkietan oinarrituko gara formak egiteko. Originala bezalakoa izatea saiatuko gara". Zaharberitzearekin amaitzeko eskultura margotuko dute, hasierako egoerara itzuliz.

Intxaurrendoko eskultura berria "urtea amaitu aurretik" plazara itzultzea espero du Ulibarrenak.

Urriaren 9an, asteazkenean, 12:00etan, Foru plazan Jose Ulibarrenaren intxaurrenduaren eskulturaren zaharberitzearen inguruko hitzaldia egingen dute Mariscal Pedro de Navarra fundazioak antolatuta.



BAZTERRETIK

ON MARINO AYERRA (JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA)

Ikasturte berria... Eskolara berriro...

Egun haietako batean, ongi jantzitako gizon baten gorpua agertu zen errepidean Altsasutik kilometro batera eta ezin izen zen identifikatuta izan agiririk ez zuelako eta burua guztiz mailatuta zuelako kamioi bat edo autobus bat gainetik pasatu izan balitzaio bezala. Epaile jaunak berak ere halaxe berretsi zidan: daturik ez zegoela, ezinezkoa zela gorpu hura norena zen esatea... Artxibatutako auzia! Nik, halere, distira berezi bat nabaritu nion begietan, zerbait izkutatu balit bezala.

Halabeharrik nahi izan zuen herria okupatu zuten artean bat nire anai-arreben ezaguna izatea eta gau hartan gure etxetik afaltzera agertzea. Niri, agian, egun hartan dena susmagarri iruditzen zitzaidan, epaileak zerbait ezkututzen zidala, afaltzera etorritako gazteak zerbait bazerabilela buruan. Egun hartan, agian, kontzientzia torturatua eta kezkatuak ikusten nituen leku guztietan.

Afaldu ondoren, gazteak nirekin hitz egin nahi zuela esan zidan, eta bakarrik gelditu ginenean barrengo har txar bat aitortzen ito nahi zuela esan

zidan, egun osoan bere gogoa estutu nahian zebilkiola eta burutik ezin zuela kendu. Lasaitzeko esan nion, aulkian jartzera gonbidatu eta... Tori zigarro bat!

Gu izan ginen...! Bart hil genuen...! Nik...! Nik neronek hil nuen! Gaueko hamaika t'erdia izanen ziren bere bila joan ginenean, ziegatik atera eta kotxe batean eraman genuen. "Hil behar nauzue?" galdetu zigun, eta nik, baietz. "Zuek onak omen zaretzen horiek ez didazue ezta apaiz batekin konfesatzeko aukerarik emanen...? Utziko nauzue gutxienez erreztatzen une batez?"

Bide bazterrean belaunikatu zen, iluntasunaren erdian, burua beheratu zuen eta erreztatzen hasi zen bere baitarako. Handik gutxira esan zigun: "Nahi duzuenen..."

Hil eta gero, agindu ziguten bezala, kamioia bizpahiru aldiz pasa genion buru gainetik, guztiz desitxuratu arte. Dokumentazioa kendu nion eta bertan esaten zenez, Olaztikoi maisu bat zen, Madrilgo oposaketetan lehenengo plaza atera berria eta hori ospatzera herrira etorria.

Film laburren lehiaketa herrikoia eta jaialdia martxan

Altsasuko Gaztetxeak Gazteewood film laburren lehiaketara proposamenak aurkezteko deia egin du

ALTSASU

2009. urtean antolatu zuen azkeneko Gazteewood film laburren txapelketa herrikoia Altsasuko Gaztetxeak. Burunda frontoian jaialdi arrakastatsua egin zuten. Datorren urtean, 2019an, hamargarren urteurrena ospatzeko III. lehiaketa antolatzea erabaki dute.

Lehiaketara ikus entzunezkoak aurkezteko epea martxoaren 31n bukatzen da. Film laburrek ezin dute 15 minutu baino gehiagoko luzera izan, MP4 formatuan egon beharko dira eta Gaztetxean



2009ko galaren sarrera. @GAZTEWOOD

DVD edo pendrive batean aurkez daitezke, edo Drive zerbitzuan gazteewood@gmail.com helbidean elkarbanatu daitezke.

Duela hamar urte Gazteewood II. film laburren txapelketa antolatu zutenean jaialdi arrakastatsua prestatu zuten frontoian. Udan III. film laburren txapelketaren saridunak aurkezteko gala handia egingen dute. Gainera, jaialdirako joateko sarrerak zozketatzen ari dira. Parte-hartzeko Facebook eta Instagram sare sozialetan Gazteewood-en profila jarraitu behar da, argitalpen bat elkarbanatu eta galara norekin joan zinateke aipatu.

Altsasuko Gaztetxeak 28 urte beteko ditu asteburu honetan. Hortaz, urteurrenerako hainbat ekimen antolatu ditu. Gaur, 22:00etan, Gazteewood Remember fest egingen da Gaztetxean.

Nafarroako Abesbatzen zikloa Sakanara helduko da

Barañaingo abesbatzaren kontzertua izanen da bihar, urriaren 6an, larunbata, 19:00etan, Lakuntzako plazan

SAKANARA

Nafarroako Abesbatzen Federazioak aurten 30 urte betetzen ditu eta ospatzeko Nafarroako Abesbatzen Zikloa antolatu du. Zikloaren kontzertuak irailan, urrian, azaroan eta abenduan egingen dituzte Nafarroako hainbat herritan. Sakanara ere iritsiko da zikloa.

Sakanan zikloaren bi kontzertu antolatu dituzte: bihar, urriaren 6an, 19:00etan Lakuntzako plazan Barañaingo abesbatza egonen da. Hurrengo kontzertua urriaren 21ean izanen da, igandean, Ur-

diango elizan. Agoitzeko San Miguel abesbatza izanen da.

Etxarri Aranazko Abesbatzak ere parte hartuko du zikloan; hortaz, azaroaren 10ean kontzertua eskainiko du Irunberrin. Nafarroako Abesbatzen Federazioaren zikloaren helburuak "kalitate handiko musika ikus-kizunak eskaintzea, artisten arteko harremanak sortzea eta sarrera librekoak izatea da". Kontzertu hauek, federaziotik argitu dutenez, "urtean zehar kultur jarduera gutxiko edo gabeko herrietan" egingen dira.

Arte eszenikoen udazkena Sakanan

Altsasun, Olatzagutian eta Etxarri Aranatzan izanen dira Antzoki Sareak Nafarroako Gobernuo Kultura Sailarekin elkarlanean antolatutako arte eszenikoen zirkuitua. Dantza, ipuin musikatuak eta antzerkia izanen dira Sakanan zirkuituari esker

SAKANA

Urria eta azaroa bitartean Nafarroako Arte Eszenikoen Zirkuituaren ikuskizunak izanen dira Nafarroako 29 herritan. Guztira 35 ikuskizun programatu dituzte, 21 konpainiaren eskutik. Haietako hiru Sakanara iritsiko dira; Altsasun, Olatzagutian eta Etxarri Aranatzan izanen dira zirkuituaren emanaldiak. Etxarri Aranazkoa, gainera, zirkuituaren amaierako ikuskizuna izanen da.

Nafarroako Antzoki Sarea proiektuaren kudeatzailea eta sustatzailea da eta haren bazkide diren gune eszenikoetan izanen dira emanaldiak. Nafarroako Gobernuo Kultura, Kirol eta Gazteria Sailarekin batera antolatu du zirkuitua. Egitaraua osatzeko orduan antolatzaileek "antzerki ausartago baten alde apustu egiten duten konpainien eta ibilbide luzeko erkidegoko konpainien ekoizpenak" kontuan hartu dituzte. Zirkuitua antolatzen laguntzeko Antzoki Sareak eta Nafarroako Gobernuak hitzarmena sinatu dute: Kultura sailak 125.000 euroko diru laguntza eman du. Zirkuitua antolatzeko aurrekontua 165.000 eurokoa da.

Zikloaren helburuetako bat arte eszeniko "minoritarioen" kontratazioa sustatzea da. Beraz,



Transoceanica ikuskizuna Olatzagutian izanen da azaroaren 25ean. DINAMO DANZA

zikloan parte hartuko duten ikuskizunen %13a dantza ikuskizunak izanen dira. Olatzagutian azaroaren 25ean izanen den *Transoceanica* ikuskizuna, esaterako, dantza ikuskizuna da. Carmen Larranz eta Uxue Monteroren ikuskizuna da eta gizakia eta naturaren arteko harremana ikertzen du. Koreografia-proiektu bat da: dantza, argazkiak eta soinuak uztartzen ditu.

Altsasuko arte eszenikoen zikloko proposamena *Gretel y Hansel* ipuin musikatuak da. Grimm anaien ipuinaren mol-

daketa da eta La Teatreria konpainiak eskaintzen du. Urriaren 26an, 19:00etan, izanen da emanaldia Iortia kultur gunean.

Nafarroako Arte Eszenikoen Zikloaren amaiera ikuskizuna Etxarri Aranatzan izanen da *Soka* ikuskizunaren emanaldirekin. Azaroaren 30ean izanen da. Tanttaka konpainiaren ikuskizuna da eta haren aktore bakarra, Iñaki Iriarte, 2017ko Max antzerki sarietara hautagaia izan zen. Euskarazko bertsioa eskainiko dute Etxarri Aranazko kultur etxean.



Anita Parker taldeko kideak Japonian. UTZITAKOA

"Esperientzia honek ziur talde bezala aberastuko gaituela"

Japonian eta Hego Korean bira egin du Anita Parker taldeak. Esperientziaz gozatzera joan dira

LAKUNTZA

Anita Parker taldea Asian zehar bira egiten ari da. Olatz Andueza lakuntzarra eta herri berean bizi den Zubiaga dira taldeko kideetako bi. Gose taldetik sortutako proiektu berria irailaren 27an iritsi zen Asiako lehenengo geltokira: Japonia. Ondoren, Hego Korea joan ziren.

Gose taldearekin Shogo Komiya-maren eskutik Japonian egon ziren. "Komiya euskal musikaren enbaxadore moduko bat da Japonian", azaldu dute Anita Parker taldeko kideek. Hortaz, "zubi bat" eraiki du eta Japoniako taldeak Euskal Herrira ekartzen ditu eta euskaldunak Japoniara eramaten ditu. "Gure lana entzun zuenean berehala gonbidatu gintuen. Guk ezin genuen ezezkorik eman, noski".

Anita Parker taldeak "musika elektronikoko dantzagarria" egiten du eta agertokian "jarrera eta

gogoa" erakustea hizkuntza uni-bertsala dela esan dute; hortaz, "horren bidez elkar ulertzea da gure helburua". Asiako birako esperientziaren harira, "nork daki, agian hurrengo abesti berria japonieraz egingen dugu".

Esperientziaz gozatea eta musikaren bitartez jende berria ezagutzea dira Asiako bidaiaren helburuak. "Esperientzia honek ziur talde bezala aberastuko gaituela". Japonian lau kontzertu eman dituzte: bi Tokyon, beste bat Yokohaman eta azkena Kiryun. Ondoren, Hego Korea bidaiatu dute eta hiru kontzertu emanen dituzte, horietako bi Zandari jaialdian: "Mundu osotik etorritako taldeekin".

Turismo gutxi egiteko aukera izan dute, eta denbora libre taldeari eskainiko ziotela esan zuten. Urrun egon arren etxean bezala sentitu direla esan dute.

Kanta eta bideoklip batekin jaio da Baloreak gazte taldea

Baloreak egitasmoa 8 eta 14 urte bitarteko bost haurrek osatzen duten musika taldea da. Pello Reparaz musikari eta ekoizle arbizuarrak kaleratu berri duten abestia sortu eta ekoiztu du. Taldekideak Irotzeko martxoan egin zuten casting digitala eta bideo kopuru handia jaso zutela jakinarazi dute. Azkenean Netxanet, Kaiet, Luna, Iradi eta

Asier aukeratu zituzten taldea egiteko.

Dagoeneko ikus daiteke taldeari izena ematen dion kantuen bideoklipa: Baloreak. Azaroan Reparazek sortutako eta ekoiztutako zortzi kantako diskoa kaleratuko dute. "Giza balioak kantuen bitartez Euskal Herriko txoko guztietara helarazi" nahi dute.

Reparazekin batera Paxkal Etxepare soinu teknikaria eta Joseba Razquin musika managerra daude proiektuan.

Magia agertokian

NAK Nafarroako Musika Garaikidearen jardunaldiak amaitzeko kontzertua eskaini zuen Etxarri Aranazko Abesbatzak larunbatean Kondestable Jauregian. Agertokian "magia" egon zela esan dute antolakuntzatik, eta, ondorioz, ikus-entzuleak liluratu zituztela. Musika korala abangoardiazko zineman zen NAK jardunaldiaren amaierako kontzertuaren izenburua.



UTZITAKOA

"Ez da bakarrik abestea, gustura egoten gara"

Juan Erdozia Mauleon etxarriarrari kantatzea gustatzen zaio. Iruñeko Kapare kantu zaharrak taldean aritzen da. Igandean Euskal Herrian kantuz ekimena antolatu du Etxarri Aranatzen. Euskal kantuak abestu ez ezik, berreskuratzen dituzte ere.

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI ARANATZ

1 Kantatzea gustatzen zaizu.

Beti gustatu zait. Txikitatik. Aitarekin eta amarekin hirurok kantaz ibiltzen ginen, beti. Eta gero egon naizen taldetan gustura aritu naiz. Abesbatzan egon nintzen, baina hiru entsegu egin behar ziren astean eta lanarekin ezin nuen segitu. Utzi nuen.

2 Nola hasi zinen Kapare kantu zaharrak taldean?

Behin Iruñeko Alde Zaharrean nengoan eta euskal kanten talde batekin topatu nintzen. Ezagun batekin esan zidan joateko. Hilean behin joaten hasi nintzen. Baina astean behin Arrano Beltzan entsegua egiten zutela esan zidaten. Hasi nintzen. Atera nuen kontua, emaztearekin hitz egin nuen eta erosketak egitera asteazkenetan joaten naizenez eta entsegua egun horretan denez, joan nintzen. Eta horrela segitzen dut. Oso gustora. Duela bi urte inguru hasi nintzen.

3 Kantatzeaz gain euskal abestiak berreskuratzen dituzue ere.

Hori da. Kantu zaharrak erre-kuperatzen ari gara. Txema Hidalgo ari da lan egiten eta



Juan Erdozia Mauleon.

Nafarroan hirurehunik gora kantu zahar erre-kuperatu ditu. Askok da. Ikaragarriak dira, niri gustatzen zaizkit. Hamar bat abesti entseatzeko ditugu eta ongi ateratzen direnak grabatzen ditugu.

4 Orduan grabatzen dituzue ere.

Iruñean Euskal Herrian kantuz izandu zen. Bagenekizkien zortzi kanta grabatu genituen eta bidali genituen Euskal Herri guztira denek ikasteko.

5 Kalez kale aritzen zarete ere, ez?

Iruñean, bai. Gero herrietara asko joaten gara, Pirinio baztarraren ibiltzen gara asko, euskara asko ahaztu da, baina kantu zaharra ikaragarri gustatzen zaie. Herri txikitara ere joaten gara. Oteiza, Erriberri eta halakoetara. Jende gutxi egoten da eta goaz indartzera, laguntzera. Bertako jendea sartzen da gurekin abestera.

6 Askotan ateratzen zarete?

Iruñean egiten dugu hilean behin. San Fermin Txikito izan zen, eta hor egon ginen. Germanen omenaldian ere egon ginen. Altsasuko auziko manifestazioa izan zenean ere. Eta gero, Erronkaritik asko deitzen digute, Luzaidetik... Baina ez da abesbatza batean bezala joatera behartuta zaudela. Taldean hogeit hamar lagun izango gara, eta ahal duena joaten da. Aurreko urtean Lesakan Nafarroa Oinez egon ginen eta egun oso polita izan zen.

7 Etxarri Aranazko ferietan, igandean, Euskal Herrian kantuz egingen duzue lehen aldiz. Nola sortu zen ideia?

Egun batean Eneka Maiz alkateari komentatu nion Etxarrin horrelako zerbait egitea ondo egongo litzatekeela. Sakanan ez dugu sekula egin, Arbizun egon ginen, baina lau lagun etorri ginen. Eta Sakanan egin nahi nuen. Alkateak esan zidan baietz. Jose Luisekin eta Faustirekin antolatu genuen.

8 Zenbat abeslari bilduko zarete?

Hona etortzeko autobus bat alokatu dute. Errotxapeako eta

gure kantu taldeak etorriko dira, bi talde. Errotxapeako hogeit lagun inguru etorriko dira eta gure taldeak beste hemezortzi lagun edo hola. Eta gero ni hemen nagoela emaztearekin hogeit egiten dugu. Badakit Tafallakoek etorri nahi zutela, Lizarrakoek ere. Baina zeinek egin behar du? Zeinek antolatzen du? Beste urte batean igual aurretik eginga dagoela antolatu daiteke. Lehendabiziko urtea izanik gehiegi iruditzen zait.

9 Hemengo jendeak parte hartu dezake?

Nahi badu bai. Udaletxeak egin ditu jendeari banatzeko paper batzuk gurekin batera abesti batzuk abesteko. Askok oso eza-gunak dira, besteak guk bakarrik egiten ditugunak zailak dira eta entseatu behar dira. Eta egingo ditugu bakarrik batzuk. Gustura gelditzeko gauza bat. Bazkaria egingo dugu Udaletxeko estalopean, eta gero kantatuko dugu. Garai batean egiten zen plazari buelta eman abesten. 100 metrotik behin abesti bat egin eta segitu buelta ematen. Nik uste hori egingo dugula. Nik uste gustatuko dela.

10 Beraz, giroa sortzen duzue ere.

Ez da bakarrik abestea. Bazkaria egiten dugu, eta gustura egoten gara. Azkeneko aldian ni lehenago itzuli nintzen 19:00etan, baina han gelditu ziren denak. Zikiri jatean egon ginen beste batean, eta tarteka abesten genuen. Oso gustura.

11 Zein da zuen abesti gogokoenena.

Euskal kantak denetarik: Erribera, Eperrak...